

Irungo tokiko Inmigrazio Plana 2004-2006.

Irungo Udalak onetsia

2004ko martxoaren 31ko osoko bilkuran.



aurrera doan herria

un país en marcha

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO


ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GABETAKO SARLA
Inmigrazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Inmigración

2 0 0 4 - 2 0 0 6

irungo tokiko
inmigrazio
plana





aurkibidea

1. SARRERA	7
2. LEGE ESPARRUA	11
2.1. NAZIOARTEKO ARAUDIA	12
2.2. BARNE ARAUDIA	19
3. KONTZEPTUAK ETA PRINTZIPIO GIDARIAK	25
3.1. KONTZEPTUAK	25
3.2. PRINTZIPIO GIDARIAK	26
4. KOMUNITATETIK KANPOKO INMIGRAZIOAREN ERREALITATEA IRUNEN	33
4.1. EMAITZA KUANTITATIBOAK	34
4.2. EMAITZA KUALITATIBOAK (AURKITUTAKO ARAZOAK)	38
5. HELBURUAK	43
5.1. HELBURU OROKORRAK	44
5.2. HELBURU ESPEZIFIKOAK	44
6. ESKU HARTZE PROPOSAMENAK ETA APLIKAZIO EKINTZAK	45
6.1. ESKU HARTZE PROPOSAMENAK	45
6.2. APLIKAZIO EKINTZAK	48
7. METODOLOGIA	53
7.1. TOKIKO PLANA PRESTATZEKO ERABILITAKO METODOLOGIA	53
7.2. TOKIKO PLANA APLIKATZEKO ERABILITAKO METODOLOGIA	54
8. BALIABIDEAK	57
8.1. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK	57
8.2. ERAKUNDEAK ETA ELKARTEAK	59
9. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA. EBALUAZIO ADIERAZLEAK	61
10. BIBLIOGRAFIA	67

1. sarrera

Migrazioaren fenomenoaren eraldatze sozio-ekonomikoekin loturik dago mundu mailan. Hala bada, munduan 150 milioi lagunetik gora migrazio-eskulana dela kalkulatzen da gaur egun, munduko eskulanaren %2tik gora, hain zuzen ere. II. Mundu Gerraren ondorioz mendebaldean gertatu zen industrializazio azkarrak eragindako aldaketa sozio-ekonomikoek migrazio fenomenoaren hasi zuten kopuru handian, gaur egun ezagutzen dugun bezala. XX. mendeko 50. eta 60. hamarkadetan emigrazio handia izan zen, Europako Hegoaldetik jende asko joan baitzen kontinente horren Iparraldera, Espainia, Italia eta Portugalgo langile ugari horien artean. 70. hamarkadan migrazio joera sortu zen Hegoalderago kokaturiko lurraldeetatik: Afrika, Magreb, Latin Amerikatik... Laurogeigarren urteen amaieran, laurogeita hamargarrenen hasieran, berriz, migrazio-fluxu berriak agertu ziren edo ordura arte zeudenek gora egin zuten munduan hainbat gertakizun izan zirenean:

Ekialdeko Europan, Berlingo murrak kendu eta geroago Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunaren (SESB) desintegrazioa etorri zenean, bloke komunista desagertu egin zen, eta ondorioz, haren kapitalistekiko aurkakotasuna ere desagertu egin zen nazioarte mailan. Horrekin batean ekonomia liberaleko Estatuak nagusitu egin ziren, eta Globalizazioa deituriko fenomenoak sortu zen. Ekialdeko Estatu zaharrak ez zeuden hori guztia hain azkar bereganatzeko prest, eta horrenbestez, krisiak areagotu egiten ziren.

Lurralde islamiko batzuetan, talde integristak ugaritu egin dira eta batzuetan boterera ere iritsi dira, eta horren ondorioz, teokraziak erregresio bat eragin du politika, gizarte eta kultura arloetan ez ezik, ekonomia esparruan ere, eta horrekin batean, pobrezia-indizeak igo egin dira, izugarri igo ere. Afrikan berrogeita hamar eta hirurogeigarren urteetako deskolonizazio prozesua modu txarrean kudeatu izanak, pobrezia-indize handiak ekarri zituen eta talde etnikoen artean gerrak piztu ziren boterearen kontrolagatik. Milioika

lagunek bizilekua aldatu behar izan zuten gatazka odoltsu horien ondorioz.

Latin Amerikako hainbat Estatutan, krisi larriak, ezegonkortasuna eta beste giza exodo handi bat ekarri dute ezegonkortasun politikoak, egoera ekonomiko jasanezinak eta hondamendi naturalek eragindako kalte handiek.

Beren jatorrizko lurraldeetan bat ere atsegina izango ez zen etorkizunetik ihes egin nahi zuten guztiek, eta batik bat Europako Komunitatean edo Estatu Batuetan ase nahi izan zituzten beren oinarrizko beharrak. Halatan, Europan, antzina emigrazio-foku izan ziren estatuak gero eta urrutiagotik etortzen ziren etorkinen harrera-leku bihurtu ziren. Iristen zen etorkin kopuruak gora egitearekin batera, gero eta murrizketa handiagoak sartu ziren atzeritarrei buruzko legeria europarretan.

Bi modutan gertatu zen etorkinen iriste hori: Lehenengoa legezko modua da, eta beharreko lekuetatik eta Estatuak xede horretarako prestatutako atzeritarrei buruzko legeek aurreikusitako moduan egiten da hori. Bigarrena, berriz, legez kanpoko modua da, hori askoz ere ilun eta traumatikoagoa da eta arazo larriak sortzen ditu, heriotzak, esplotazioa, prostituzio-sareak eta abar..., eta gizarte mailan benetan ahul bihurtzen ditu etorkinak. Estatistika Institutu Nazionalak eta Barne Ministerioak agertutako azken datuen arabera (2003), milioitik gora dira Espainian egoera irregularrean bizi diren etorkinak, edo gauza bera esanda, egoitza-baimenik ez dutenak. 1.324.000 dira, berriz, egoitza-baimena duten atzeritarrak. Fenomeno horrek duen eraginaren ideia bat ematen dute, bada, zifra horiek.

Jatorrizko lurraldeetako pobrezia eta migrazioaren arteko erlazioa ez da, ordea, erabat lineala, euskarri komunitario handia duten gizarteak izan badira eta horiek ez dute desegituratuago dauden lurraldeen neurri berean emigratzen. Gainera, emigratzen dutenak ez dira beti beren lurraldean egoera txarrean daudenak, horiek ez baitute bizi aldaketa hori egiteko baliabiderik izaten. Emigratioak osagai ugari ditu lan eta ekonomia osagaiez gainera; proiektu pertsonalaren karga eta gizarte modernoagoetan integratzeko go-goaren karga ere baditu emigratioak. Etorkinak ez dira beren lurraldeetako egoeren biktima soilik, beren bizitzaren, aldatu eta aurrera egiteko nahiaren eragile ere badira.

Eraldatze sozialen zati dira migrazio fenomenoak, eta aldaketa faktore bat dira aldi berean aldatzen ari diren gizartearen barnean. Eraldatze horiek gatazka ekartzen dute batzuetan. Baina gatazka hori bitzta sozialaren izaera berekoa da, eta hala den aldetik, aurreikusitako eta negoziatu daiteke. Gatazka horietan gutxiengo ahuletako kideak sartzen direnean, handietsi daitezke, gatazka bakanak orokor bihurtuz eta gutxiengo horiek osatzen dituzten pertsonentzako estereotipo iraingarriak sortuz.

Etorkinen integrazioa erronka bat da, zalantzarik ez dago horretan, etorkin horiek ja-

sotzen dituzten gizarteentzat; migrazio-fluxuak hartzen dituzten gizarte horiek, era berean, arazoak izan baititzakete beren komunitateko kideak ez baztertzeko. Gaur egun, enpleguaren behin-behinekotasuna, ordainsarien jaistea, mugikortasun geografikoa eta enpresen kokaleku eza bezalako faktoreek, eta azken batean, arestian aipatu dugun Globalizazio ekonomikoa deituriko fenomeno horrek, gizartean gero eta gizabanako gehiago jartzen dituzte ahulezia egoeran. Hala bada, beste garai batzuetan gizarte oparo eta aberatsek arazo handirik ez zuten etorkinak hartzeko, eskulan merke gisa soilik hartzen zituzten ordea. Gaur egun, berriz, etorkinak iristeak, gizarte sektore batzuetan, batik bat eskasi handienak dituztenetan, lehiakortasuna sor dezake dituzten baliabide urri horietaz (hiri baliabideak, etxebizitza eskuratzeko aukerak, espezializaziorik gabeko enpleguak, gizarte laguntzak eta abar) gozatzeko orduan. Ekonomia, hiri eta gizarte degradazioak eragindako testuinguru horietan gertatzen dira gatazkak bertakoen eta etorkinen artean.

Etorkinen integrazioak sortzen dituen erronka handiak lor daitezke etorkin horiek ikusteko modua aldatzen badugu, pertsona horiek ez dira eskulan merke gisa hartu behar, eskubideak dituzten pertsonak baitira, eta integrazioa gizarteko bi aldeak: komunitatean errotutako kideak eta etorkinak, ukitzen dituen kontua dela uste duen ikuspegia hartu behar da kontuan. Ildo horretatik, ez dugu ahalegindu behar batzuen eta besteen artean dauden aldeak nabarmentzen, aniztasunaren ezkutuaren pean, komunitateak bereizten dituzten alde horiek areagotzen lagun baitezakegu. Horren ordez, estrategiak bilatu behar ditugu, gizarte hartzailearen eta etorkinen beharrak eta balioak konbinatzeko estrategiak, hain zuzen ere.

Izpiritu horretan oinarrituta osatu da Irungo Tokiko Inmigrazio Plana. Eusko Jaur-laritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren laguntzaz egin da eta Irungo Udaren Gizarte Ongizate Arlotik aplikatuko da.

Egiturari dagokionean, hainbat atal bereiz ditzakegu Planaren barnean. Zehatz esateko:

1

Lehenik eta behin, jarduteko orduan kontuan hartu beharreko esparru arauemailea zehaztuko dugu, hauxe da, Irunen dauden Europako komunitatetik kanpoko etorkinen egoera aski zuzenean ukitzen duen, eta horrenbestez, Plan honetan aplikatu behar den legeria zehaztuko dugu, nazioarteko legeriarekin hasi eta Tokikoarekin buka.

2

Bigarren, Planaren kontzeptu eta printzipio gidariak zehaztutako ditugu, edo beste hitz batzuetan esanda, plan horren esparru teoriko-kontzeptuala zehaztuko dugu. Nolanahi ere, Euskal Inmigrazio Planari aplikaturiko ikuskera bere egiten du plan honen.

3

Hirugarren, inguruan dugun errealitate hurbilenera hurreratuko gara, kasu hone-tan, Irungo egoerara, Irunen kokaturiko etorkinen Egoeraren Diagnostikotik abiatu-ta. Hauxe da, nazionalitateak, erregistraturiko adin multzoak, ikasketa maila, presta-kuntza, lana, erroldan sartutako etorkin kopurua eta abar zer-nolakoak diren azter-tuko dugu. Eta bestalde, migrazio ekintzaren inguruan bertako biztanleek duten sentsibilitate maila islatuko dugu. Komunitatetik kanpoko etorkinen kolektiboan hautemaniko beharrekin, hauxe da, erregistraturiko arazoekin amaituko dugu kapi-tulu hau.

4

Laugarren, eta arazo horiek zehaztu ondoren, Atal Eraginkorrera pasako gara, eta hor, Plan honen bidez lortu beharreko Helburu Nagusiak eta Espezifikoak, helburu horiek lortzeko beharreko esku hartze proposamenak eta esku hartze proposamen horiek garatuko dituzten ekintzen lehen katalogo bat zehaztuko ditugu.

5

Bosgarren, eta neurriak zehaztu ondoren, Tokiko Inmigrazio Plana prestatzeko eta plan hori behar bezala aplikatu eta ebaluatzeko erabili dugun metodologia azalduko dugu. Tokiko sarean plana aplikatzeko dauden baliabideak ere aipatuko ditugu, eta ebaluazio adierazleen sistema eta zerrendarekin amaituko dugu lana.



2. lege esparrua

Honako irizpide antolatzaile honen arabera egituratu dugu Plan honek kontuan hartu beharreko esparru juridikoa:

1 NAZIOARTEKO ESPARRU ARAUEMAILEA:

Nazioz gaindiko esparru horren barnean beste hiru multzo egongo lirateke era berean:

Nazioarteko komunitatearen araudia: Gai honen inguruan Nazio Batuen Erakundeak egindako arau eta legezko testuak sartuko ditugu, hartzaileak Nazioarteko Komunitatea osatzen duten Estatu desberdinak direnean.

Araudi komunitarioa: Nazio Batuen Erakundeko kide izateaz gainera, nazioz gaindiko beste erakunde bateko, hauxe da, Europako Batasuneko Estatu Kide ere bada Espainia. Horrenbestez, erakunde horrek Inmigrazioaren inguruan prestaturiko araudia ere aztertuko dugu hemen.

Alde biko Nazioarteko Itunak: Atal honetan Espainiak parte hartu duen alde biko Nazioarteko hainbat Itun jasoko ditugu, estatu horietako etorkinen presentzia handia baita Irungo udalerrian (Kolonbia, Ekuador, Maroko, Errepublika Dominikarra, Poloniako Errepublika eta Errumania).

2 BARNE ESPARRU ARAUEMAILEA:

Estatuan eta maila desberdinetan, hauxe da, estatu mailan eta autonomia mailan arauak ekoizten dituzten organoetatik etorritako Inmigrazioari buruzko arauak jasoko lirateke atal honetan.

Estatu araudia: CE'78az gainera, batik bat Atzerritarrei buruzko Legea eta Araudia, Kode Zibila, Kode Penala eta abar.

Autonomia araudia: Kasu zehatz honetan EAEkoa hartuko dugu kontuan.

2.1. Nazioarteko araudia:

2.1.1. Nazio Batuen araudia:

GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA (1948)

Deklarazio honek gizaki guztientzako, halako izateagatik, eskubide berdinak jasotzen ditu bere artikuluetan, hauxe da, bizitzeko, askatasunerako, esklabutzaren mende ez egoteko, torturarik ez jasan behar izateko eskubideak. Plan honi dagokionean, aipatzekoak dira 2. artikulua (Eskubideen unibertsaltasuna), 13.a (Libre ibiltzeko eskubidea), 14.a (Asilo eskubidea), 15.a (Nazionalitatea libre aukeratzeko eskubidea) eta 30.a (Aplikatzeko garaian Estatuak testua interpretatzeari buruzkoa).

EKONOMIA, GIZARTE ETA KULTUR ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO ITUNA (1966)

Arestian aipaturiko Giza Eskubideen Deklarazio hori garatzea ekonomia, gizarte eta kultur eskubideei dagokienean: Multzo horretatik aipatzekoak dira lan egiteko eskubidea (6 – 9 art.) familia bat osatzeko eskubidea (10. art.) norberarentzat eta familiarentzat bizi maila egokia izateko eskubidea, elikagai, jantzi eta etxebizitza egokiak barne, eta bizi baldintzak etengabe hobetzeko eskubidea (11. art.), hezkuntza eskubidea (13. art.) eta hainbat kultur eskubide (15. art.).

ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOEN NAZIOARTEKO ITUNA (1966)

Aurrekoarekin hertsiki loturik dago hau ere, hura Giza Eskubideen Deklarazioaren ekonomia, gizarte eta kultur eskubideen garapenean oinarritzen zen bezala, honek gauza bera egiten du eskubide Zibil eta Politikoekin: bizitzeko eskubidea, esklabutzaren mende ez egoteko eskubidea, norbere askatasun eta segurtasun eskubideak, dagoen lurraldean libre ibiltzeko eskubidea Estatu partaide bateko lurraldean lege dagoen pertsona batek, bizilekua libre aukeratzeko eskubidea, edozein estatutan libre sartu eta ateratzeko eskubidea (12. art.), atzerritar baten kanporatzea zehaztuko duten baldintzak (13. art.), benetako babes judizialek etorritako eskubideak, adierazpen askatasunerako eskubidea, biltzeko, elkar-teak osatzeko, ezkontzeko, familia osatzeko eskubideak, haurren eskubideak eta abar.

ARRAZA-DISKRIMINAZIOA BAZTERTZEKO ERA GUZTIEI BURUZKO DEKLARAZIOA (1965)

Testu honetatik nabarmenduko genituzke 1. artikulua (Diskriminazio kontzeptua

arraza, kolore edo jatorri etnikoarengatik), 4-5 artikulua (Estatuei beren legeriak eta politikak berrikusteko egiten zaien deia, era horretako diskriminazioa baztertu ahal izateko), 9. artikulua (Estatuei egiten zaien deia arraza-diskriminazioa sortzen duten ekintzak eta jarduerak aurrera eramaten dituzten erakundeen aurka neurriak har ditzaten), eta 10. artikulua (Neurriak hartzen dituzten agenteei egiten zaien gomendioa, neurri horiek hartu baino lehen diskriminazioaren arrazoiak azter ditzaten).

LURRALDE ASILOARI BURUZKO DEKLARAZIOA

Nabarmendu egingo genituzke 1. artikulua (Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 14. artikuluari jarraiki ematen den asiloa errespetatzeko beharra. Asiloa emateko arrazoiak asilo hori ematen duen eta kontzesioari salbuespenak zehazten dizkion Estatuak kalifikatu beharko ditu), 2.a (Nazioarteko Komunitaterako interesa asiloa jasotzen dituzten pertsoneri begira, eta nazioarteko elkartasunaren printzipioaren arabera, asiloa ematen duen eta zailtasunak dituen Estatu baten karga arintzeko bideak zehaztea, beste Estatu batzuek edo Nazio Batuek emandako laguntzen bidez) eta 4.a (Adierazten du, asiloa jasotzen dutenei Nazio Batuen xede eta printzipioen aurkako jarduerak egiten uzteko obligazioa dutela Estatuak).

ERLIJIOAN ETA USTE SENDOETAN OINARRITUTAKO TOLERANTZIA EZA ETA DISKRIMINAZIO ERA GUZTIAK BAZTERTZEARI BURUZKO DEKLARAZIOA (1981)

Kontzientzia, erlijio eta pentsamendu askatasunerako eskubideak duen garrantzia azpimarratuko genuke deklarazio honetan, bere adierazpen desberdinen bidez pertsona baten bizi ikuskera osatzen duten elementu gisa (1.1 eta 6. art.); inork ere ezin baitu eskubide hori kaltetuta ikusi Estatuengatik edo beste agente batzuegatik (1.2, 2. art.) legeak aurreikusten dituen zirkunstantzietan izan ezik (13. art.), horrek urratu egingo bailituzke giza duintasuna eta Nazio Batuen Kartaren printzipioetan zehaztutakoa (3. art.), eta horren aurrean Estatuak prebentzio eta arintze neurriak hartzeko beharra dutela zehazten du (4. art.), eta gainera, Estatuaren barne araudiak aukera eman behar du praktikan eskubide horietaz gozatzeko (7. art.).

BIZI DIREN NAZIOKOAK EZ DIREN GIZABANAKOEN GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO DEKLARAZIOA (1985)

Nazio Batuen Karta eta Giza Eskubideen alorrean eginiko gainerako Nazioarteko Itunak garatzeko, "atzerritar" kontzeptuak (1. art.) bere eskubideak (5., 6., 8., 9. eta 10. art.) eta bere betebeharrak zein diren zehazten du (4. art.). Deklarazioak bere norainokoa zehazten du gainera (2. art.), publizitate printzipioa alor honekin loturiko barne araudi guz-

tientzako (3. art.), eta azkenik, Estatu partaide bateko lurraldeetan legez dagoen atzerri-tar bat kanporatzeko aukera emango duten arrazoiak jasotzen ditu (7. art.).

GUTXIENGO NAZIONAL EDO ETNIKOEN, ETA ERLIJIO EDO HIZKUNTZAZKO GUTXIENGOEN BARNEAN DAUDEN PERTSONEN ESKUBIDEEI BURUZKO DEKLARAZIOA (1992)

Gutxiengo horien babesa eratzen du, eta "bizi diren Estatuetan politika eta gizarte mailan egonkortasuna lortzen lagunduko dutela", eta era berean, "herrien eta Estatuaren artean adiskidetasuna eta lankidetzaren indartzen lagunduko dutelako" zehazten du: Gutxiengo horien eskubideak zein diren zehazten du Deklarazio honek (2. eta 3. art.), eta Estatuari hainbat betebeharrak ezartzen dizkie haiek hartzeko orduan (1. 4., 5., 6., 7. eta 8. art.). Gutxiengo horien eskubideak erabiltzerakoan ez zaio inolara ere kalterik egingo unibertsean onarturiko giza eskubide eta oinarrizko askatasunetaz gozatzeko pertsona guztiek duten eskubideari (8.2 art.).

ARRAZA-DISKRIMINAZIOA BAZTERTZEKO NAZIOARTEKO KONBENTZIOA (1965)

Bere norainokoa zehazten du (1. art.), eta baita Estatu partaideek hartu beharreko neurriak ere (2-7 art.). Era berean, arraza-diskriminazioa baztertzekeko Batzorde bat sortzea aurreikusten da (8-15 art.), eta azkenik, atxiki ahal izateko Estatuak bete beharreko baldintzak jasotzen ditu, eta baita haren aplikazioan eta interpretazioan sor litezkeen liskarrei konponbidea emateko bideak ere (16-25 art.).

ERREFUXIATUEN ESTATUTUARI BURUZKO KONBENTZIOA (1951)

Alor honetan Estatuaren artean tirabirak ez sortzeko, eta errefuxiatuek oinarrizko eskubideak eta askatasunak ahalik eta modu zabalenean erabili ditzaten ziurtatzeko tresna gisa eratu da. Xedapen Orokor batzuk jasotzen ditu (1. Kap.), horien artean nabarmendu-ko genituzke "errefuxiatu" kontzeptua (1. art.), haren izaera juridikoa (2. Kap.), haren irabazizko jarduerari dagokiena (3. Kap.), ongizatea (4. Kap.) eta neurri administratibo batzuk (5. Kap.).

ERREFUXIATUEN ESTATUTUARI BURUZKO KONBENTZIOAREN PROTOKOLO GEHIGARRIA

AG-k 1966ko abenduaren 16ko 2198/XXI Ebazpenean onartua, arestian aipaturiko 1951ko Konbentzio horren aplikazio esparrua zabaltzen du, eta errefuxiatu haiengana ere zabaltzen da 1951ko urtarrilaren 1eko muga hori kontuan hartu gabe.

— ○ — **HERRIGABEEN ESTATUTUARI BURUZKO DEKLARAZIOA (1954)**

Arautu egiten du "Herrigabearen" irudia (1. Kap. 1. art.), bere izaera juridikoa (2. Kap.), irabazizko jarduerak (3. Kap.), ongizatea (4. Kap.), neurri administratiboak (5. Kap.) eta halako Azken Xedapen batzuk jasotzen ditu liskar hipotetikoak konpontzeko (6. Kap.).

— ○ — **HERRIGABEEN KASUAK MURRIZTEKO KONBENTZIOA (1961)**

Herrigabeen kasuak murrizteko prestatu zen konbentzio hau lehen aipaturiko 1954ko Konbentzio hori garatu eta betetzearren.

2.1.2. Komunitarioa

— ○ — **GIZA ESKUBIDEAK ETA OINARRIZKO ASKATASUNAK BABESTEKO HITZARMENA (1950)**

1950eko azaroaren 4an egin zuen Europako Kontseiluak. Honako kontu hauek jasotzen dituzte bere artikuluek: oinarrizko eskubide eta askatasunen zerrenda (I. Titulua), Giza Eskubideen aldeko Auzitegi Europarra sortzea Hitzarmena aplikatuko dela ziurtatzeko (II. Titulua), eta beste hainbat xedapen (III. Titulua). Horri dagokionean, aipatzekoak dira, Hitzarmen honen bi Protokolo Gehigarri: Lehen Protokolo Gehigarria 1952ko martxoaren 20koa. Eta 6. Protokoloa 1983ko apirilaren 28koa. Nolanahi ere, 1994ko maiatzaren 11ko 11. Protokoloak aldatzen ditu biak, halako eskubide osagarri batzuk eta heriotza-zigorren abolizioa jasotzen baititu honek.

— ○ — **TORTURA ETA BESTE TRATU TXAR BATZUEI EDO ZIGOR ANKER, KRUDEL EDO ITSUSGARRIEI BURUZKO KONBENTZIOA (1987)**

"Torturaren aurka borroka egiteko tresna eraginkorrago" gisa azaltzen da (1. art.) eta alor horretan Estatuak hartu beharko dituzten neurri batzuk jasotzen ditu (2-16 art.). Xede horretan Torturaren aurkako Batzorde bat sortzea zehazten du (17-24 art.), eta hura berresteko halako xedapen komun batzuk, erreserba, liskarren konpontzea eta abar ...(25. art. eta hurrengoak).

— ○ — **LANGILE ETORKINEN LEGEZKO ESTATUTUARI BURUZKO KONBENTZIO EUROPARRA (1977)**

Arautu egiten ditu Langile etorkinaren irudia (1. art.), formaltasunak (5. eta 6. art.), lan-baimenak eta haien baldintzak (8., 16., 20. eta 21., 23-29 art.), egoitza (9. art.), ha-

rrera (10. art.), familia berriro biltzea (12. art.), aurreprestakuntza, eskola, lanbide eta hizkuntza prestakuntza. Berrezkuntza profesionala (14. art.), langile etorkinaren ama hizkuntzaren irakaskuntza (15. art.), aurrezki transferentzia (17. art.) gizarte segurantz (18. art.), gizarte eta osasun laguntza (19. art.) heriotza (22. art.), itzulera (30. art.), hartutako eskubideen kontserbazioa eta gainerako xedapen orokorrak (31. art. eta hurrengoak).

GUTXIENGO NAZIONALAK BABESTEKO HITZARMEN MARKOA (1995)

1. Titulua nabarmenduko genuke, Nazioarteko Lankidetzaren barnean kokatzen du honnek Hitzarmena (1. art.), fede onaren printzipioa zehazten du haren aplikaziorako (2. art.) eta gutxiengo arraza bateko pertsona batek halako gisa tratatzeko edo ez tratatzeko duen eskubidea azaltzen du (3. art.). 2. Tituluak, berriz, hitzarmen hori aplikatzerakoan Estatu partaideek beren gain hartuko duten konpromisoa aipatzen du (4-19 art.), eta azkenik, eskubide horiek erabiltzeko mugak zehazten dira (20. art.).

AMSTERDAMGO ITUNA (1997)

III bis Tituluak, Hirugarren Atalean, "bisatuak, asiloa, inmigrazioa eta pertsonen zirkulazio librearekin loturiko beste politikak", eta zehatzago adierazteko, bere 73 J artikulua, adierazten du, askatasun, segurtasun eta justizia espazio bat sortu ahal izateko, horren inguruan hainbat neurri hartuko dituela Kontseiluak, pertsonen zirkulazio librea ziurtatu ahal izateko betiere. Era berean, laguntza neurri batzuk hartuko ditu kanpo mugetako kontrolerik, asiloarekin eta inmigrazioarekin zuzenean loturik, eta baita delinkuentziari aurrea hartu eta haren aurka borroka egiteko neurriak ere (a Atala); asilo, inmigrazio eta hirugarren lurraldeetako pertsonen eskubideen babes esparruetan (b Atala); kooperazio judizialaren esparruan alor zibilean (c Atala); kooperazio polizial eta judizialaren esparruan alor penalean, prebentzioaren eta delinkuentziaren aurkako borrokaren bidez Batasunean segurtasun maila handia ziurtatu ahal izateko (d Atala).

DUBLINGO ITUNA (1990)

Estatu kideek asiloa eskatzen duten pertsona guztien eskariak azter ditzaten eta, asilo eskaera hori aztertzeke lana inork hartu gabe, asiloa eskatzen dutenak behin eta berriro Estatu kide batetik bestera bidal ez ditzaten ziurtatzeko sortu zen, besteak beste. Nabarmenduko genituzke 1. artikulua (Kontzeptuak), 2-17 artikulua (Estatu partaideen egitekoak), eta 18. artikulua (Zeregin horretarako Batzorde bat sortzea).

Azkenik, aipatzekoa da, urte horretan bertan aplikazio Hitzarmen bat sortu zela hitzarmen hori garatzeko.

— ○ — **SCHENGENGO AKORDIOA (1985)**

1990ko ekainaren 19ko Akordioaren bidez, 1985eko ekainaren 14ko Schengengo Akordioari atxiki zitzaion Espainia. Pixkanaka-pixkanaka muga komunitako kontrolak kentze-ari buruzkoa da akordio hori. Aipatzekoa da, gaur egun, Europako Batasunaren esparrura bildu denez, akordio hau Eskubide Komunitario bilakatu dela, eta Europako Batasuneko Estatu kideek aplika dezaketela. Honako puntu hauek zehazten ditu akordioak: barne mugetan kontrolak kentzea (mugen gurutzatzea, kanpokoak, bisatuak, atzerritarren zirkulatzeko baldintzak, egoitza-baimenak eta onargarriak ez direnen zerrendan sartzea, laguntza neurriak...), polizia eta segurtasuna (Polizia kooperazioa, laguntza judiziala alor penalean, "non bis in idem" printzipioa aplikatzea, estradizioa, epai penalen exekuzioaren transmisioa, estupefazianteak, su armak eta munizioak), merkantzien informazio, garraio eta zirkulazio sistema bat sortzea, eta azkenik, izaera pertsonaleko datuen babesa.

— ○ — **TEMPEREKO KONTSEILUA (1999)**

1999ko urrian egin zen Temperen (Finlandia). Hiri horretan EBeko Estatuetakoko Estatu eta Gobernu Buruen artean egin zen Kontseilu berezian asilo eta inmigrazio alorrean lortu beharreko helburu batzuk zehaztu ziren, Europako Batasuneko lurretan legez dauden etorkinei begira beti ere. Horretarako, honako kontu hauek ukitu ziren: hirugarren lurraldeekiko lankidetzak baterako garapena sustatzeko; asilorako sistema europar komun bat; hirugarren lurraldeetako nazionalen bidezko tratua ematea, hirugarren lurraldeetako nazionalen estatutua EBeko hiritarrenera hurbildu ahal izateko; eta xenofobiaren eta arrazakeriaren aurkako borroka.

— ○ — **KONTSEILUAREN 2000/43 DIREKTIBA, PERTSONEKIKO TRATU BERDINTASUNAREN PRINTZPIOAREN APLIKAZIOARI DAGOKIONA, EDOZEIN DELA ERE PERTSONA HORIEN ARRAZA EDO ETNIA**

Arraza edo etnia-diskriminazioaren aurka borroka egiteko esparru bat zehazten du, Estatu kideetan tratu berdintasunaren printzipioa aplikatu dadin, arrazoi horietan oinarrituta inolako diskriminazio zuzen edo zeharkakorik izan ez dadin lortzeko. Era berean, aipatzekoa da, Direktiba honetan "diskriminaziotzat" hartzen dela akosoa edo jazarpenera, ulerturik arraza edo etniari loturiko nahi ez den portaera dela, eta kontuan izanik portaera horrekin pertsonaren duintasuna erasotzen dela eta inguru larderiatsu, mingarri, itsusgarri, iraingarri edo laidogarria sortzen dela. Horri dagokionean, Estatu kide bakoitzeko araudi eta praktika nazionalen arabera definitu ahal izango da jazarpen kontzeptua. Era berean, aipatzekoa da, Direktiba hau pertsona guztiei aplikatuko zaiela, bai sektore publikoan bai pribatuan, aipatzen dituen hainbat esparrutan (Enplegua lortzeko aukera, hezkuntza...). Azkenik, diskriminazio positiborako neurriak hartzeko aukera jasotzen du.

**2000/78 DIREKTIBA, ENPLEGUAN ETA OKUPAZIOAN TRATU
BERDINTASUNA LORTZEKO ESPARRU OROKOR BAT ZEHAZTEARI
BURUZKOA**

Bere 1. artikulua ongi asko laburtzen duen bezala, "erlijio eta uste sendoetan, ezintasunean, adinean edo sexu orientazioan oinarritutako arrazoiengatik enplegu eta okupazio esparruen ematen den diskriminazioaren aurka borroka egiteko esparru orokor bat zehaztea du xede, Estatu kideetan tratu berdintasunaren printzipioa aplikatu dadin". Estatu kideek diskriminazio positiborako neurriak hartzeko aukera ere jasotzen du.

2.1.3. Alde Biko Nazioarteko itunak:

Espainiaren eta Estatu batzuen artean sinaturiko alde biko Itun batzuk ere badaude, estatu horietako etorkin kopuru handi samarra baitago Irungo udalerrian. Horrenbestez, honako bost itun hauek aipatuko ditugu:

- Espainia eta Kolonbiaren arteko Akordioa, lan migrazio-fluxuen arautze eta antolamenduari buruzkoa, 2001eko maiatzaren 21ean Madrilen egina.
- Espainiako Erreinuaren eta Ekuadorreko Errepublikaren arteko Akordioa, lan migrazio-fluxuen arautze eta antolamenduari buruzkoa, 2001eko maiatzaren 29an Madrilen egina.
- Espainiako Erreinuaren eta Errepublika Dominikarraren arteko Akordioa, lan migrazio-fluxuen arautze eta antolamenduari buruzkoa, 2001eko abenduaren 17an Madrilen egina.
- Espainiako Erreinuaren eta Marokoko Erreinuaren arteko Akordioa, eskulanari buruzkoa, 2001eko uztailaren 25ean Madrilen egina.
- Espainiako Erreinuaren eta Poloniako Errepublikaren arteko Akordioa, bi Estatu horien artean lan migrazio-fluxuen arautze eta antolamenduari buruzkoa, 2002ko maiatzaren 21ean Varsovian egina.
- Espainiako Erreinuaren eta Errumaniaren arteko Akordioa, bi Estatu horien artean lan migrazio-fluxuen arautze eta antolamenduari buruzkoa, 2002ko urtarrilaren 23an Madrilen egina.

Ia eskema berberari jarraiki, honako alderdi hauek arautzen dituzte Akordio horiek:

enplegu eskaintza jakinaraztea, baldintza profesionalen balorazioa, langile etorkinen bidaia eta harrera, haien lan eta gizarte eskubideak eta baldintzak, denboraldiko langileei eta beren itzulerari buruzko xedapen bereziak eta aplikazio eta koordinazio xedapenak.

2.2. Barne araudia:

2.2.1. Estatu araudia:

KONSTITUZIO ESPAINOLA

Konstituzio Espainolaren artikuluetatik honako hauek nabarmendu ditugu: 1. artikulua (Ordenamenduaren printzipio gidariak), 9.a (Pertsonen eta botere publikoek legezko-tasunaren printzipioa betetzea eta honako beste printzipio hauek ezartzea: hierarkia arauemailea, arauen publizitatea, gizabanakoen eskubideen aurka dauden edo eskubide horiek murrizten dituzten xedapen zigor-emaielen atzeraeragin-eza, segurtasun juridikoa, botere publikoen arbitrariotasunaren interdikzioa), 10.a (Ordena politiko eta sozialaren oinarriak eta oinarrizko eskubideak interpretatzeko parametroak), 11.a (Nazionalitatea), 13.a (Atzerritarren eskubideei eta asilo eskubideari buruzkoa), 14.a (Berdintasuna Legearen aurrean eta diskriminazio-eza) 16.a (Kontzientzi askatasunari eta Estatuaren ez-konfesionaltasunari buruzkoa), 103.a (Administrazio Publikoari buruzkoa), 140.a: (Udal autonomia) eta 149.1.2. (Estatuaren eskumen eskusibitatea nazionalitate, inmigrazio, emigratio, atzerritartasun eta asilo eskubidearen alorretan).

KODE ZIBILA

Kode Zibilaren 17-28 artikuluek hainbat xedapen jasotzen dituzte honako kontu hauei buruz, jatorriz nazionalitate espainiarra duten pertsonak, Nazionalitatearen eskuratze deribatiboa, nazionalitatea egoitzagatik, nazionalitate espainiarra galdu eta berreskuratzea eta abar.

ERREGISTRO ZIBILAREN ARAUDIA

Nazionalitate espedienteen arau bereziak zehazten dituzte araudi honen 220-235 artikuluek.

ATZERRITARREI BURUZKO LEGEA

Lehenengo, honako lege hauek aipatu behar dira: azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoa, 4/2000 Lege Organikoa berritzen duena, 8/2000 Lege Organikoak aldatua, Toki

Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Arruntaren 30/1992 Legea eta Bidegabeko Lehiaren 3/1991 Legea. Aldaketek ez dute eskubideen katalogoa ukitzen, eta ezta atzerritarrek Espainian dituzten eskubideak eta askatasunak eta haien gizarte integrazioa arautzen duen urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren egitura ere. Gero, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak aldatu zuen 4/2000 Lege Organiko hori.

Hala bada, 8/2000 Lege Organikoak bere I. Tituluan zehazten du atzerritarren eskubideak eta askatasunak zein diren, eta zehazten ditu, era berean, eskubide horiek erabiltzeko baldintzak (1. Kap.: 1-15 art.); familia berriro biltzea (2. Kap.: 16-20 art.); berme juridikoak (3. Kap.: 20-22 art.) eta diskriminazioaren aurkako neurriak (4. Kap.: 23 eta 24 art.).

II. Tituluak, berriz, atzerritarren egoeren erregimen juridikoa jasotzen du, hauxe da, lurralde espainiarrean sartu eta ateratzeari buruzko kontuak (1. Kapituluak: 25-28 art.); atzerritarren egoerak (2. Kapituluak: 29-35 art.); lan-baimena eta erregimen bereziak (3. Kapituluak: 36-43 art.); administrazio baimenengatik ordaindu beharreko tasak (4. Kapituluak: 44-49 art.). Atzerritarren alorreko arau-hausteei buruzko kontuak eta haren erregimen zigor-emailea jasotzen ditu III. Tituluak (50-67 art.). Azkenik, IV. Tituluak Lege honi amaiera ematen dio Botere publikoen koordinazioarekin (67-70 art.).

— ○ — **ATZERRITARREI BURUZKO ARAUDIA**

Lurralde espainiarrean sartu eta ateratzeko erregimena jasotzen du I. Kapituluak, eta kapitulu hori 4 ataletan banatzen da era berean: 1. Atala, sarrera eta irteera postuei buruzkoa (1-3 art.); 2. Atala, dokumentazio eta bisatuei buruzkoa (4-22 art.); 3. Atala, sarrera, baldintza eta debekuei buruzkoa (23-30 art.); 4. Atala, Borondatezko irteerei eta irteteko debekuei buruzkoa (31-34 art.). II. Kapituluak Espainian dauden atzerritarren egoeren erregimen juridikoa jasotzen du, eta 6 ataletan banatzen da: 1. Atala, Egonaldiari eta egonaldia luzatzeari buruzkoa (35-39 art.); 2. Atala, egoitza egoerari buruzkoa (40-53 art.); 3. Atala, Ikasleak (54-55 art.); 4. Atala, Dokumentazio gabekoak (56-57 art.); 5. Atala, Atzerritarren Erregistro Nagusia (58-61 art.), eta 6. Atala, Adin txikiko atzerritarrei buruzkoa (62-63 art.).

III. Kapituluak lan-baimenari eta erregimen bereziei buruzkoa arautzen du, eta hori ere Ataletan banatzen da, 5 ataletan zehatzago esateko: 1. Atalak gai honen inguruko arau orokorrak jasotzen ditu (64-65 art.); 2. Atalak irabazizko jarduerak aurrera eramateko baimena (66-69 art.); 3. Atalak baimenen hasierako kontzesioa eta berritzeko erregimena (70-75 art.), 4. Atalak Erregimen bereziak (75-79 art.) eta 5. Atala, berriz, prozedura arauari buruzkoa da. IV. Kapituluak Atzerritartasun alorrean eginiko arau-haustekak eta haien erregimen zigor-emailea jasotzen ditu, eta hau ere 5 Ataletan banatzen da: 1. Atala, pro-

zedura zigor-emaileari buruzkoa (92-126 art.); 2. Atala, Kanporatze araudia Atzerriarrentzako Zentroak, 3. Atala, gizarte eta lan zaintza alorretako arau-hauste eta santzioei buruzkoa (133-134 art.); 4. Atala, beste arau-hauste eta santzioak (135-136 art.); eta 5. Atala, berriz, derrigorrezko itzulera eta irteerei buruzkoa da (137-139 art.).

V. Kapituluaren Administrazio Orokorren organoen koordinazioari buruzkoa da, eta 2. Ataletan banatzen da: 1. Atala, Atzerriarrentzako Bulegoei buruzkoa; eta 2. Atala, migrazio zentroi buruzkoa.

— ○ — **KODE PENALA**

Honako artikulua hauek nabarmendu ditugu: 22.4. (Zirkunstantzia astungarri gisa zehazten du), 89. artikulua (Atzeritarrak lurralde nazionaletik botatzea), 312 (Atzerriko eskulana legez kanpo kontratatzea), 318bis (Legez kontrako trafikoa eta inmigrazio klandestinoa), 510, 511, 515, 517, 518 (Konstituzioan jasotako oinarritzko eskubide eta askatasun publikoen erabileran eginiko Delituak Izenaren pean biltzen diren bost artikulua zehatz horiek interesgarritzat hartu ditugu Inmigrazio elementua guztietan presente dagoelako).

— ○ — **TOKI ERREGIMENAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN 7/ 1985 LEGEA**

Kontuan izanik Plan hau Tokiko Plana dela, ezin genuen Lege hori jaso gabe utzi. Interesatzen zaigunerako, honako artikulua hauek nabarmendu ditugu: 10. artikulua (Administrazio Publiko desberdinen artean informazioa, lankidetzeta eta koordinazioa izatea eta bakoitzaren eskumen esparrua errespetatzea, tokiko administrazioen artean bai beste erabateko administrazioekiko); 15., 16. eta 17. artikulua (Udal Erroldari buruzkoak); 18. artikulua (Hiritarren eskubideak eta betebeharrak), 25. artikulua (Udalerriri batek bere gain hartu ditzakeen eskumenak), eta azkenik, 55-62 artikulua (Administrazio arteko harremanak).

— ○ — **GAINERAKO ESTATU ARAUDIA**

- Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa, Hauteskunde Erregimen Orokorra arautzen duena (176. art.: Udal hauteskundeetan botoa emateko eskubidea dute Espainian bizi diren atzeritarrek, haien lurraldeek espainiarren botoa onartzen badute Itun baten terminoetan).
- Urriaren 11ko 1521/1991 ED, Atzerriarrentzako Bulegoen sorrera, eskumen eta funtzionamenduari buruzkoa.
- Otsailaren 21eko 1/1992 LO, Hiritarren Segurtasunaren Babesari buruzkoa.

- 5/1992 LO, Izaera Pertsonaleko Datuen Tratamendu Automatizatuari buruzkoa.
- Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Arruntaren 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legea.
- Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legea, Administrazio Publiko eta Prozedura Administrazioei buruzkoa, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duena.
- Ekainaren 26ko 766/1992 ED, EBko Estatu kideetako nazionalak Espainian sartu eta bertan geratzeari buruzkoa (Maiatzaren 5eko 737/1995 eta azaroaren 14ko 1710/1997 Errege Dekretuek aldatua).
- Ministroen Kontseiluak 1994ko abenduaren 2an hartutako Akordioa. Inmigranteak Gizarteratzeko Plana onartzen du akordio horrek.
- Otsailaren 10eko 202/1995 ED. Udal hauteskundeetarako Espainian bizi diren atzerritarren hauteskunde eroldaren sorrera arautzen du errege dekretu horrek.
- Otsailaren 18ko 239/2000 ED, 2000ko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan aurreikusitako atzerritarren erregularizaziorako prozedura zehazten duena.
- Polizia Zuzendaritza Nagusiak, Barne Polizia Zuzendaritza Nagusiak, Barne Ministerioak eta Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren Migrazioen Antolamendurako Zuzendaritza Orokorrek 2000ko martxoaren 7an emaniko Ebazpena. Ebazpen horren bidez, onartzen dira erregimen komunitarioan, lan eta egoitza-baimena, egoitza-baimena, edo egoitza-txartela eskatzeko ereduak atzerritarren erregularizaziorako prozedurari heldu ahal izateko.
- Administrazio Publikoen Ministerioak 2000ko martxoaren 10ean emaniko Agindua. Agindu horren bidez, atzerritarren erregularizaziorako eskaeren aurkezpena azkartzen da, prozedurari buruzko otsailaren 18ko 239/2000 EDak aurreikusitakoaren arabera.
- Polizia Zuzendaritza Nagusiak eta Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren Migrazioen Antolamendurako Zuzendaritza Orokorrek 2000ko martxoaren 16an emaniko Ebazpena. Ebazpen horren bidez, onartu egiten dira atzerritarren erregularizaziorako prozedurari buruzko instrukzioak; 2000ko urtarrilaren 11ko 4/2000 LOaren Aldi Baterako Lehen Xedapenak aurreikusten du prozedura hori, eta 2000ko otsailaren 18ko 239/2000 EDak onartzen du.
- Abuztuaren 4ko 5/2000 Errege Dekretu Legegilea, Gizarte mailako Arau-hauste eta

Santzioei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duena (IV. Kapituluak – 2. Atala: Arau-haustek atzerritarren lanerako baimenen alorrean).

- Otsailaren 16ko 142/2001 ED, abenduaren 22ko 8/2000 LOaren 4. Aldi Baterako Xedapenak aurreikusitako erregularizaziorako baldintzak zehazten dituena.
- Ministroen Kontseiluak 2001eko martxoaren 30ean hartutako Akordioa, Atzerritartasuna eta Inmigrazioa Erregulatu eta Koordinatzeko Programa Globala onartzen duena.
- Apirilaren 4ko 344/2001 ED, Inmigrazio Politikarako Goi Batzordea sortzen duena.
- Apirilaren 4ko 345/2001 ED, Inmigrazioaren Behatoki Iraunkorra arautzen duena.
- Apirilaren 4ko 367/2001 ED, Etorrinak Gizarteratzeko Foroaren osaera publikoa, eskumenak eta funtzionamendu erregimena arautzen dituena.

2.2.2. Autonomia araudia:

EUSKADIKO AUTONOMIA ESTATUTUA

Euskadiko Autonomia Estatututik honako Artikulu hauek nabarmendu ditugu Plan honen ondorioetarako: 7. art., euskaldunen izaera politikori buruzkoa; 9. art., besteak beste, artikuluko honek zehazten du Euskadiko hiritarren eskubide eta betebeharrei dagokienean, - eta horiek Konstituzioan jasotzen direnak dira-, euskal botere publikoek eskubide eta betebeharrorien erabilera egokia zaindu eta ziurtatuko dutela (9.2.a.), baldintzak sustatzeko eta eragozpenak baztertzeko beharreko neurriak hartuko dituztela gizabanakoaren eta hura dagoen taldeen askatasuna eta berdintasuna eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen lortu ahal izateko (9.2.d.), eta hiritar guztiei erraztasunak emango dizkietela Euskadiko bitzitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturean parte har dezaten (9.2.e.); eta 10. art., artikuluko honek zehazten du EAEak eskumen eskusiboa duela, besteak beste, Instituzioen gizarte laguntza (10.12), antolamendu, erregimen eta funtzionamendu alorrean eta adin txikikoei eta kartzelaratuiei babesa eta tutela zehazterakoan, alor zibil, penal eta penitentziarioa arautzen duen legeria orokorra kontuan harturik (10.14.), Euskadiko jarduera ekonomikoaren sustapena, garapena eta plangintza ekonomia-aren antolamendu orokorraren arabera (10.25.).

2002KO OTSAILAREN 12KO 40/2002 DEKRETUA, ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETARAKO SAILAREN EGITURA ORGANIKO ETA FUNTZIONALARI BURUZKOA

16. artikulua Inmigrazio Zuzendaritzaren funtzioak jasotzen ditu, besteak beste, e-makume eta gizon etorkinen gizarteratzea lortzeko ekintzak eta neurriak proposatzea eta pertsona horiek gizarte babes sistemetara biltzea, eta gizarteko hiritarrak sentsibilizatzeko neurriak proposatzea, elkarbizitza baketsua lortzeko eta diskriminazio oro baztertzeko.

—○— **EKAINAREN 25EKO 155/2002 DEKRETUA, INMIGRAZIOAREN
ESPARRUAN JARDUERAK BIDERATZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUENA**

Europako Batasunekoak edo Ekonomia Esparru europarrekoak ez diren atzerriko etorkinei arreta eskaintzen dieten edo sentsibilizazio lanak egiten dituzten Erakunde Publiko eta Pribatu desberdinei emango zaizkien laguntzak arautzea du xede. Hori guztia pertsona horiek gizarteratu daitezen laguntzeko eta gizartea sentsibilizatzeko, elkarbizitza baketsua izan dadin eta diskriminazio oro bazter dadin.

—○— **200/2002 DEKRETUA, ETORKINEN GIZARTERATZEA ETA
PARTAIDETZA BULTZATZEKO FOROA SORTZEN DUENA**

Aholkularitza organo horrek partaidetza eta elkarrizketarako bide izatea, etorkinen nahiak eta eskariak jasotzea eta etorkinen gizarteratzea sustatzeko proposamenak biltzea du xede, hori guztia gizarte partaidetza, kontsulta, informazioa eta aholkularitza bultzatzeko Inmigrazioaren alorrean Administrazioaren jarduerak planifikatzerakoan.

3

kontzeptu eta printzipio gidariak

Irungo Tokiko Inmigrazio Planak Euskal Inmigrazio Planetik hartu ditu hura arautzen duten kontzeptu eta printzipio batzuk eta tokiko perspektibara egokitu ditu. Hona hemen zein diren:

3.1. Kontzeptuak:

Euskal Inmigrazio Planak, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2003ko abenduaren 9an egindako bilkuran onetsitakoak, inmigraziorako instituzio politika global bat eratu du lehen aldiz gure Autonomia Erkidegoan. Inmigrazio politika eraginkorra eta justua prestatu ahal izateko, oinarritzko planteamendu batzuk argitu behar dira ezinbestean, eta hainbat premisa ideologiko zehaztu behar dira plana haietan oinarritu ahal izateko. Ildo horretatik, Tokiko Inmigrazio Planak, eta Euskal Planak ere, ikuskera progresista dute oinarri, eta ideologia horrek, era berean, pertsona guztien giza eskubideak babestearen aldeko kultura zabal eta aurreratua du oinarri:

3.1.1. Inmigrazio kontzeptua

3.1.2. Integrazio kontzeptua

3.1.3. Hiriko egoitza kontzeptua

3.1.1. Inmigrazio Kontzeptua

- Tokiko Inmigrazio Planak, Euskal Planak, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2003ko abenduaren 9an egindako bilkuran onetsitakoak bezalaxe, fenomeno positibo eta beharrezkotzat hartzen du inmigrazioa.

- Inmigrazioa gizarte prozesu pluralista eta aberats baten barnean dago gizarte bizitzako esparru guztietan eta ez da soilik lan fenomeno gisa modu erredukzionistan hartu behar.
- Inmigrazioa egitura-fenomeno bat da gizarte modernoetan.

3.1.2. Integrazio Kontzeptua

- Bi norabideko kontzeptua da integrazioa, eta egokitze prozesu dinamikoa eskatzen du etorkinen eta jatorrizko herritarren artean.
- Kulturarteko bidea ezinbestekoa da integraziorako. Kulturaren edo politikaren ikuspegitik begiratuta, integrazioa ez da ezinbestean identitateak elkartzea, eta are gutxiago gizarte hartzaileak beste kultura batzuk bereganatzea. Berdintasunean oinarrituta, identitate desberdinak askatasunean garatzeko aukera eskatzen du integrazio kontzeptu aurreratu batek, eta identitate horien artean erlazio eta elkarreragin prozesu bat ere eskatzen du aldi berean.
- Inmigratu duten pertsonen gizarte hartzailearen kulturaren erabat eta askatasun osoz sartzeko aukera eman behar die integrazioak. Horretarako, politika publikoek bideratu eta ziurtatu egin behar dute inmigratu dutenek politika horietan parte hartzeko duten eskubidea, baina askatasun osoz atxikitzen direnean eta ez asimilazio prozesu baten emaitza gisa.
- Gizarte erantzukizunarekin onartu behar da integrazioa. Ezinbestekoa da gizarteratzearen kudeaketa egokiarekin loturiko kontuek adostasun handia izatea, eta indar politikoaren eta gizarte sektoreen interes partikularrak gainditzea.

3.1.3. Hiriko Egoitza Kontzeptua

- Egoitza da zerbitzu sozialak lortzeko eskatzen den lotura.
- Integrazio prozesuan sektore publikoaren erantzukizuna eskatzen du hiriko egoitzak. Horrenbestez, sektore publikoari dagokio hiriko egoitzak eskaintzen dituen gutxieneko eskubideak ziurtatzeko beharreko prestazioen kudeaketa.

3.2. Funtsezko printzipio gidariak

Irungo Tokiko Planak bertako perspektibara egokitzen ditu Euskal Inmigrazio Planak,

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2003ko abenduaren 9an egindako bilkuran onetsitakoak, proposatzen dituen printzipio gidariak.

Hala bada, Integrazioaren helburu nagusia lortzeko, beharrezkoak eta aski dira honako funtsezko printzipio gidari hauek:

3.2.1. Berdintasun printzipioa

3.2.2. Erantzukizun Publikoaren printzipioa

3.2.3. Gizarte Partaidetza printzipioa

3.2.1. Berdintasuna

- Berdintasun printzipioak giza eskubideen titularitatea ahalik eta gehien zabaltzea eskatzen du eskumen propioen esparruan. Era berean, betebeharrak ere berdinak izango dira inolako desberdintasunik egon ez dadin.
- Era berean, berdintasunak esan nahi du, zuzenbideko Estatu sozial eta demokratiko batean onartutako eskubideak ziurtatzen dituzten prestazio eta zerbitzuak lortzeko aukera berdinak eman behar direla, normalizazio printzipioaren bidez behar orokorretarako eta espezializazio printzipioaren bidez hertsiki etorkinen kolektiboaren behar espezifikoei.
- Berdintasun printzipioa osoa da gutxieneko estalduraren esparruan nazionalak eta bertan bizi diren atzerritarrak, eta atzerritarren multzoa elkarren artean berdintzei begira. Printzipio horrek berak gizonak eta emakumeak berdinak direla dio, eta generoari ikuspegi egokia ematea eskatzen du. Hauxe da, desberdintasunak baztertzeko helburua jaso behar du eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu behar du inmigrazioaren alorrean Udalerriak bultzatzen dituen politika eta ekintza guztietan. Horretarako, Tokiko Inmigrazio Plan hau zehaztu, gauzatu eta ebaluatzerakoan sistematikoki aintzat hartu behar dira emakumeen eta gizonen baldintza, egoera eta beharrak, eta bereziki, emakumeen desberdintasun egoeratik etortzen direnak boterea eta baliabide ekonomiko eta sozialak lortzerakoan.
- Berdintasun printzipioak ez du murriztu behar desberdina izateko eskubidea, alderdi hori sustatu baizik. Horrek esan nahi du tratu berezia emango dela egoera desberdinetan, emaitza-berdintasun erreal eta eraginkorra lortu ahal izateko bai bana-banako kolektiboan. Ezberdintasunarekiko errespetuak garrantzi berezia hartzen du hizkuntza eta kultur esparruetan, eta esku hartze publiko handia eskatzen du jatorrizko kulturen babesaren eta garapenaren alorrean nahiz tokiko kulturaren integra-

tzerakoan.

3.2.2. Erantzukizun Publikoa

- Integrazioa lortzea botere publikoen erantzukizuna dela dioen oinarriaren gainean eraiki da Tokiko Inmigrazio Plana. Ikuspegi hori berdintasun printzipioari lotzen zaio eskubide eta betebeharretan, izan ere, pertsona atzerritarrak bizi diren komunitate hartzailean sartzen badira soilik lortuko da integrazio hori, eta horrek esan nahi du komunitate horrek erantzukizun kolektiboa izan behar duela ezinbestean, gutxieneko berdintasun hori lortuko bada. Halatan, gutxieneko erantzukizuna etorkinen kolektibora zabaldu behar da bertako kolektibora zabaltzen den hein berean, elkarren arteko integrazio horren gutxieneko parametroak lortu ahal izateko.
- Erantzukizun publikoaren printzipioak alderdi instrumentala eransten dio berdintasun printzipioari berdintasun hori bideratu ahal izateko, baina Planaren beraren funtsezko elementua da aldi berean, jarrera publiko integratzailea islatzen duen aldetik.
- Etorkinen kolektiboaren integrazioan botere publikoek duten erantzukizunak ez du interbentzioa osorik alor horretan agortzen, printzipio horrek gizarte partaidetza printzipioarekin osatu behar baitu. Horrenbestez, botere publikoek ahalik eta partaidetza esparru zabalena ziurtatu behar dituzte eskubideen gutxieneko berme normalizatuaren barnean.
- Erantzukizun publikoren printzipiotik datoz zuzenean printzipio gidari eraginkorrak, eta haien arabera antolatzen dira egungo sektore publikoa egituratzeko modua eta bideak.

3.2.3. Gizarte Partaidetza

- Gizarte partaidetzaren printzipioak alderdi instrumentala eransten dio berdintasun printzipioari berdintasun hori bideratu ahal izateko, baina Planaren beraren funtsezko elementua da aldi berean, integrazio prozesuaren funtsezko bidea den aldetik. Erantzukizun publikoa instituzioen esku hartzeko obligazioaren ondorio bada, gizarte partaidetza ahalmen bat da, etorkinen, etorkin horiek dauden kolektiboaren eta gizarte hartzailearen beraren eskura dagoena.
- Era berean, partaidetza printzipioaren arabera, politika publikoak prestatu eta kudeatzeko garaietan politika horien hartzaileak izango diren taldeek hartu behar dute parte. Esparru horretan, hirian egokituriko etorkinen kolektiboak dira partaidetzaren

subjektu nagusi, baina partaidetza hori gizarte osora ere zabaltzen da, oro har.

- Gure sistema politiko eta instituzionalaren sakontze demokratikoa da partaidetza printzipioa. Gizarte demokratiko aurreratu batek ahalik eta partaidetza maila handiena izan behar du gai publikoetan, eta parte hartze kultura sortu behar du gizartean, erabakiak hartu eta kudeatzeko orduan erantzukizun partekatua eta elkartasun aktiboaren ideiak sendotu ahal izateko.
- Etorकिन integrazio prozesuan gizarte hartzailearen partaidetzak eratze esparru egokia aurkitzen du baluntariora eta asoziazionismoaren oinarriaren gainean jarduten duten gizarte mugimenduetan.

3.3. Printzipio gidaria eraginkorrak

Tokiko Inmigrazio Planaren printzipio gidari eraginkorrak dira bere helburu nagusia lortzeko aukeratutako metodologia eta prozedurek oinarritzat hartzen dituzten irizpideak. Antolakuntzarako irizpide instrumentalak dira, eta arestian azaldutako funtsezko printzipio gidari horien aplikaziotik eskatutakoa bete behar dute ere berean. Tokiko Inmigrazio Plan honen helburua betetzeko beharreko esku hartze publikoaren eredutik, honako printzipio hauek etorriko lirateke:

3.3.1. Integralitate printzipioa

3.3.2. Prebentzio printzipioa

3.3.3. Normalizazio printzipioa

3.3.4. Koordinazio printzipioa

3.3.5. Ebaluazio printzipioa

3.3.1. Integralitatea

Euskal Inmigrazio Planak, Jaurkitzaren Kontseiluak, 2003ko abenduaren 9an egindako bilkuran onetsitakoak, euskal gizartean inmigrazio fenomenoaren antolakuntza osoa bideratzea du xede, erabateko integrazioa lortu ahal izateko. Horregatik, zeharkako eta alde anitzeko ikuspegia du Euskal Inmigrazio Politikak, eta izaera horiek bere egiten ditu. Hala ere, Irungo Tokiko Inmigrazio Planak inmigrazioaren alorrean aurrera eraman beharreko udal jarduerak antolatu nahi ditu, etorkinak gizarteratzea lortu ahal izateko. Hala bada, zeharkako eran etorkinen errealitatea sartu nahi du herritarrei zuzendutako udal ekintzetan, eta etorkin horien behar espezifikoak erantzun nahi die eskumena duten zerbitzuen bidez.

3.3.2. Prebentzioa

Euskal Inmigratio Planaren xedea ez da soilik politika publikoak modu antolatu eta sistematikoan eratzea. Plan horren xedea plangintza ere bada, bai gizarte errealitatean bai planaren kudeaketan gerta litezkeen efektu gaiztoei edo disfuntzioei ahal neurrian aurrea hartu ahal izateko. Horrenbestez, Gizarte Ongizate Arloak sustaturiko Irungo Tokiko Planak gizarte bazterketari aurrea hartu nahi dio eta hiritarren ongizatea sustatu nahi du betiere. Helburu hori lortu ahal izateko, Gizarte Ongizate Arloaren iritziz, berebiziko garrantzia dute hirian bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinen beharren eta eskubideen inguruan irundarrak sentsibilizatzeko jarduerak

3.3.3. Normalizazioa

Funtsezko berdintasun eta erantzukizun publikoaren printzipioak bideratzeko, ahalik eta gehien normalizatu behar dira etorkinen kolektiboa benetan integratzeko behar diren prestazio eta zerbitzu guztiak.

3.3.4. Koordinazioa

Irungo Tokiko Planak koordinazioa beharrezkotzat hartzen du hirian etorkinen integrazioa aurrera eraman ahal izateko. Halatan, koordinazioa zaintzen badugu soilik lortuko dugu instituzio eta erakunde desberdinek kolektibo horri begira bultzatutako lanak egiterakoan bikoiztasun eta akatsik ez gertatzea.

3.3.5. Ebaluazioa

Irungo Inmigratio Planak tresna malgua eratzeko asmoa du. Gizarte Ongizate Arloak Planaren exekuzioa ebaluatuko du, plan horren aplikazioa hobetu eta planteatzen diren zailtasunei konponbidea aurkitu ahal izateko. Era berean, Tokiko Planaren aplikazioaren azken ebaluazioa egingo da bere azken fasean, 2005. urtean.



4 ● *komunitatetik kanpoko inmigratioaren errealitatea irunen*

Tokiko Inmigrazio Plana prestatzeko inmigratioaren errealitatea ahalik eta modu zehatz eta objektiboenean ezagutu ahal izateko, gure hirian komunitatetik kanpoko inmigratioari buruzko azterketa bat egitea pentsatu zuen Gizarte Ongizate Arloak. Azterketa horrek "Komunitatetik kanpoko etorkinek dituzten beharrei buruzko Azterketa" izen generikoa du, eta "Bidasoa Bizirik" Bidasoako Garapenerako Agentziak egin zuen 2003. urtean zehar. Inmigrazio fenomenoak gure hirian dituen ezaugarriak ezagutzeaz gainera, fenomeno berri horren inguruan irundarrek dituzten jarrera nagusiak azaltzen dira azterketa horren barnean. Azterketa orokorraren atal horrek "Irungo udalerrian inmigratioari begira dauden iritzi eta jarrerren azterketa" du izena.

Hiru fase bereizi ziren azterketa hori egiteko:

1 Lehen fasean datuen azterketa kuantitatiboa egin zen, eta horretarako, alde batetik, etorkinen kolektiboari buruzko informazioa bildu zen, Udal Erroldan eta Biztanle eta Etxebizitza Erroldan egindako kontsulten eta beste iturri batzuen bidez. Eta bestalde, telefonoz 400 inkesta egin zitzaizkien bertako hiritarrei, migrazio ekintzaren aurrean hiritar horien sentsibilitatea zer-nolakoa den zehaztu ahal izateko; horrenbestez, horixe da arestian aipaturiko herritar hartzaileen iritzi eta jarrerren Azterketa hori.

2 Bigarren fasean, berriz, azterketa kualitatiboa egin zen, eta modu kuantitatiboan ezin jaso izan ziren alderdiak aztertu ziren. Azterketa hau aurrera eramán ahal izateko, elkarrizketak egin zitzaizkien intereseko kolektiboetara (Etorkinekin osaturiko edo

3 etorkinekin lanean diharduten Elkarteak, Gobernu Kanpoko Erakundeekin hasi eta Sindikatuekin buka), Administrazio Publikoetako Teknikariei, eta **azkenik**, Irunen bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinei.

4.1. Emaidza kuantitatiboak

Irunen bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinen azterketa kuantitatiboak kolektibo horren egitura eta gorputza ezagutzeko du xede. Horretarako, 2001eko Irungo biztanleen udal Errolda eta Biztanle eta Etxebizitza errolda izan dira gure informazio iturriak. Baina beste iturri batzuk ere erabili ditugu, hauxe da, Barne Ministerioa, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, Inem, Eusko Jaurlaritza, Langai, Egailan eta Donostiako Udala. Azkenik, aipatzekoa da 2003ko uztailan bildu zirela datu horiek.

4.1.1. Irunen bizi diren komunitatetik kanpoko etorkiren egitura eta gorputza

A. Nabarmen gora egin du komunitatetik kanpoko etorkinen kopuruak.

2003ko uztailan komunitatetik kanpoko 1.282 etorkin zeuden Irunen erroldatuta eta guztira 58.515 biztanle zituen hiriak. Horrenbestez, portzentajeetan, biztanleen **%2,19** osatzen du horrek.

Biztanle sektore horren hazkundearen progresioari dagokionean, 2000. urtearekiko, urte horretan komunitatetik kanpoko 464 etorkin baitzeuden Irunen erroldatuta (biztanleriaren %0,82), etorkin kopuruak gora egin du, 818 etorkin gehiago baitira, hauxe da %1,76.

B. Nazionalitate ugariak kolonbiarra (%18,88), ekuadortarra (%15,52) eta marokoarra (%10,45) dira Irunen.

2000. urteaz geroztik Kolonbiatik dator etorkinen portzentaje handiena. 2002. urteaz geroztik, ordea, presentzia hori txikiagoa da portzentaje terminoetan. Era berean, azken hirurtekoan izandako bilakaera aztertzen badugu, egiaztatuko dugu nazionalitate ekuadortarra gero eta ugariagoa dela hirian, urtetik urtera gehiago baitira. Aldiz, Marokotik etorritako etorkinen kopuruak behera egin du.

Nazionalitate horiez gainera, beste leku batzuetatik etorritako etorkinak ere badira Irunen: Brasil (%6,24), Errumania (%5,23), Argentina (%4,13), Txina (%3,12) Ukraina

(%3,04) eta Peru (%2,85). Gainerako nazionalitateak ez dira kolektiboaren %2,5era iristen.

Kontinenteen arabera, komunitatetik kanpoko etorkinen kopuru handiena Amerikakoa da (760), horietatik %32 kolonbiarrak izanik. Kontinente afrikarrekoak, berriz, 245 etorkin dira, eta horietatik erdia baino gehiago Marokokoak dira (%55). Komunitatetik kanpoko europarrei dagokienean (155), %43 Errumaniatik datoz. Eta azkenik, Ozeaniakoak 6 etorkin baino ez dira, eta horietatik 4 filipinarrak dira.

—○— **C. Oro har, generoari dagokionean ez da alderik sumatzen. Komunitatetik kanpoko etorkinen %47 gizonezkoak dira eta %53 emakumezkoak.**

Nazionalitateen arabera, emakumeen presentzia handiagoa da Latin Amerikako kolektiboan (%63), salbuespena dira Txile, Bolivia, Peru eta Uruguaytik etorritako kasuak, Magrebetik etorritako kolektiboan, berriz, gizonezkoak gehiago dira emakumezkoak baino (%67).

—○— **D. Erroldan dauden etorkinen %84k 16 eta 65 urte arteko adina du, hauxe da, lan egiteko adinean daude.**

Etorkinen kolektiboaren batez besteko adina 30 urtekoa da (30,7ko batez bestekoa gizonezkoetan eta 29,2koa emakumezkoetan), adin-segmentu ugariena, berriz, 25-29 urte artekoa da. Horrenbestez, garbi dago iristen diren komunitatetik kanpoko etorkinak gero eta gazteagoak direla, eta gainera, biztanleria aktiboaren adinean daudela. Horrek esan nahi du lan merkatuan sartzeko eta beren egoera ekonomikoa hobetuko duen lanpostu bat lortzeko irrikatzen daudela etorkin horiek.

—○— **E. Auzo edo eremuen araberako banaketari dagokionean, aipatzekoa da hiriko erdialdean eta garraio publiko nagusiak dauden lekuetan bizi direla gehienak.**

Hala bada, Elitxu-Lapitzen (%17,71), Erdialdean (%12,09), Artian (%9,36) eta San Migelen (%8,97) biltzen da komunitatetik kanpoko etorkinen kopuru handiena, garraiobide nagusiak dauden edo igarotzen diren lekuetan, hain zuzen ere, eta horrek indartu egingo luke kolektibo horrek Irun "iragaitzazko bide" gisa hartzen duelako tesia, bai Gipuzkoako beste leku batzuetara bai Frantzia aldera joateko. Era berean, aipatzekoa da, banaketa hori alda daitekeela, askotan etorkinek ezagunengana jotzen baitute erroldan sartzeko beren helbidea utz diezaieten eskatzeko. Horregatik, baliteke, leku batzuetan benetako etorkinen portzentajea Udal Erroldan erregistratutakoa baino handiagoa izatea.

—○— **F. Irunen bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinen ia %70ek badu gutxienez eskola graduatua edo baliokidea.**

Eskola Agiria (%27,3) eta Goi Batxilergoa edo BBB (%24,10) lortu dutenen kolektiboaren barnean daude gehienak. Baina beste batzuek honako prestakuntza maila hauek dituzte: Lanbide Heziketa (%13,1), Oinarrizkoak agiririk gabe (%9,05), Goi-mailako Titulazioa (%6,55), eta Erdi Mailako Titulazioa (%4,06). Azkenik, aipatzekoa da, %13,26ak ez duela zehazten eta %0,26k ez dakiela ez irakurtzen ez idazten.

Generoari dagokionean, gizon eta emakumeen artean ez da alde nabarmenik sumatzen, baina unibertsitateko titulazioa, eta Oinarrizko Ikasketak dituzten emakume gehiago dira gizonak baino.

Irunen gailentzen diren hiru nazionalitateei dagokienean, aipatzekoa da, kolonbiarrak direla ikasketa maila handiena dutenak. Aldiz, marokoarren artean aurkitzen da ikasketarik gabeko etorkinen kopuru handiena.

G. Komunitatetik kanpoko etorkinen %5,46 INEMen inskribatua dago. Guztizko enplegu eskatzaileen %2,8 osatzen dute horiek.

Lehenengo eta behin, aipatzekoa da, enplegu bulegoan enplegu eskatzaile gisa izen emateko, egoitza-baimena indarrean eduki behar dutela komunitatetik kanpoko etorkinek. EAEan egiten diren guztizko kontratazioei dagokienean, etorkinei egiten zaizkien kontratazioetan sarrera handiena duten hiru eremuetako bat da Bidasoa eskualdea. EAEan egiten diren guztizko kontratazioei dagokienean, Bidasoa eskualdea 7. lekuan dago aztertutako 24 eremuen artean, guztizko kontratazioen ia %3 egiten baitira bertan, herrialdeko hiriburuen (%56), Ibai-Ezkerraldearen (%8), Ibai-Eskuinaldearen (%4) eta Durangoko eskualdearen atzetik. EAEko etorkinen kontratazioari dagokionean, Bidasoa eskualdea 5. lekuan dago, kontratazioen ia %5 egiten baitira bertan, herrialdeko hiriburuen (%57) eta Ibai-Ezkerraldearen (%5) atzetik.

Irungo Enplegu Bulegoan (INEM) izena emana duten komunitatetik kanpoko etorkinen kopuruari dagokionean, 70 lagun ageri dira enplegu eskatzaile gisa, hauxe da, Irunen guztira dauden enplegu eskatzaileen %2,8. Komunitatetik kanpoko kolektiboaren barnean %5,46 osatuko luke horrek. Eta generoari dagokionean, guztizko enplegu eskatzaileei begira aztertzen bada, bertako biztanleen artean gertatzen ez den bezala (enplegu eskatzaileen %33 gizonak dira eta %66,2 emakumeak), komunitatetik kanpoko etorkinen artean gizonak gehiago dira emakumeak baino (%58,6 %41,4ren aurrean).

H. Azkenik, etorkizunerako proiektzioaren arabera, komunitatetik kanpoko etorkinen kopuruak nabarmen gora egingo du Irunen, zehatz esateko, udalerriko biztanleen %7,5 osatuko du.

Estatistika Institutu Nazionalaren arabera, 2010ean, gutxienez biztanleen %9 atze-

rritarrek izango dira Espainian (2001. urte amaieran %5ekoa zen EINK egindako biztanle atzerritarrei buruzko monografiaren arabera, eta %3,24koa MI-ren arabera 01/12/31n).

2001eko Biztanleen Erroldaren aurrerakinaren arabera, 2000-2002 biurtekoan iritsi ziren Espainiara gaur egun Espainian bizi diren ekuadortarren eta kolonbiarren ia ehuneko 50, baina Espainian egokituriko marokoarren ehuneko 20 soilik etorri ziren denboraldi horretan.

Legezko atzerritarren kopurua hirukoiztu egin da azken zazpi urte hauetan, eta azken urteko lehen 6 hilabeteetan Estatura egoera erregularrean iritsi direnak, berriz, 120.000tik gora ziren ekainaren amaieran. Hau da, hazkunde hori hilabetean 20.000 lagun ingurukoa da Espainian. Azken hiru urte hauetako Irungo udalerriko erroldako datuak aztertzen badiugu, 2000 eta 2001 urteen artean gertatu zen alderik handiena. %0,82 izatetik %1,36 izatera pasa zen komunitatetik kanpoko etorkinen kopurua. Gaur egun, bertako biztanleekiko %2,19an dago portzentaje hori.

Irungo udalerrian bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinen estimazio bat egiteko orduan, kontuan eduki behar da:

- Estimazio hori egiteko eskura ditugun datuak urri direla.
- Estimazioak ez dituela kontuan hartu hartan eragina izan lezaketen eragile sozio-ekonomikoak.
- Jaiotza-heriotza joeran egonkortasuna dagoela ulertzen da.
- Euskal estatistika iturri ofizialak, EUSTATEK, kontsideratzen du ez duela informazio aski kolektibo honen etorkizunerako proiektzioa egiteko.

2010. urterako Irunen bizi izango diren etorkinen estimazioa 4.815 lagun izango lirateke, eta udalerriko guztizko biztanleriari dagokionean %7,5 osatzen du horrek, baina portzentaje hori zuhertasun handiz erabili behar da goian azaldutako muga horiengatik.

4.1.2. Migrazio fenomenoaren inguruan tokiko biztanleek duten pertzepzioa:

- **A.** Oro har, **Irungo udalerrian etorkinen presentzia ez da gehiegizkotzat hartzen**, eta horrenbestez, epe laburrera elkarbizitzarako arazo garrantzitsurik ez da ikusten, eta normal gisa kalifika daiteke.
- **B.** Etorkinen kolektiboari dagokionean, pentsatzen da kolektibo horrek **ekonomia maila txikia eta kultur maila ertain-txikia** dituela, eta hasiera batean behintzat ez da baztertze nabarmenik sumatzen kolektibo horrekiko.

- C. Egiatzatu da **gure hiritarrek ez dutela askorik ezagutzen** udalerrian dauden **etorkinen kontua**, eta ezjakintasun horrek nolabait ere lotura zuzena du adinaren handitzearekin eta inmigrazioarekiko jarrera negatiboarekin. Aitzitik, etorkinekiko erlazio-esperientziak haien irudia hobetzeko joera erakusten du.
- D. Oro har, **hiritarrek etorkinekiko duten jarrera positibotzat hartzen da eta ez da baztertzaileria.**
- E. Inmigrazioak udalerrriaren ekonomia eta kultur garapenean izan dezakeen eraginari buruz egindako balorazioak ñabardura positiboak ageri ditu, baina **aztertutako segmentu guztietan gehiengoaren iritzia da inmigrazioak ez duela inolako eraginik izan.**
- F. A priori **langile etorkinak iristearen aldeko jarrera** nabari da, batik bat kualifikatu gabeko eskulana eraikuntza, etxeko zerbitzu, ostalaritzarako,...
- G. **Gehienek iritzi** kasu guztietan **etorkinek parte aktibo bihurtu behar dute integrazio prozesuan** gizarte eta kultura mailan udalerrira "hurbiltzeko" ekintzen bidez.
- H. Halaz ere, **etorkinen integrazioa errazteko neurriak hartzearen aldeko jarrera** sumatzen da, **baina ez eztabaida gabea, Udala izanik neurri horiek kudeatu eta bideratzeko erantzukizuna ematen zaion instituzio irudia.**

Ildo horretatik, hiritarrek oso iritzi positiboa erakusten dute eta jarrera hartzailea ageri dute aurkeztutako integrazio ekimenei begira, batik bat sanitatearekin eta hezkuntzarekin loturiko alorretan. Halaz ere, inplikazio ekonomiko zuzenagoa eskatzen duten neurrietan, etxebizitza eta dirulaguntzak, esate baterako, nolabaiteko aurkakotasuna sumatzen da, bereziki ekonomia maila ertain-txikia duten kolektiboaren artean, a priori, beren egoera arriskuan ikusten baitute eta neurri horiek hartzea eragozpen bat izan bailiteke berentzat.

4.2. Emaitza kualitatiboak (aurkitutako arazoak)

Datuen azterketa kualitatiboaren bidez, modu kuantitatiboan ezin jaso izan diren alderdiak aztertu ditugu, zehatzago adierazteko, Irunen bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinen kolektiboak dituen beharrak. Horretarako, erabilitako metodologiaren arabera, Tokiko Administrazioaren barnean, esparru desberdinetan etorkinen gizarteratze eta lanbideratzeari begira aurrera eramaten diren programak eta ekintzak identifikatu eta bildu ditugu lehenengo.

Bigarren, eta elkarrizketen teknikaren bidez, komunitatetik kanpoko etorkinekin lan egiten duten erakundeek integrazioari begira duten pertzepzioa bildu nahi izan dugu. Inmigrazioa faktore komun duten lau kolektibo bereiz ditzakegu kategoria horretan: lehenengo, profesionalek osaturiko multzoa izango litzateke, beren jarduerak kolektibo horrekin lotura zuzena edo zeharkakoa duenean (Ikastetxeak, Sendagileak, Higiezinaren Agentziak...). Bigarren multzoan Elkartek, Erakunde Zibikoak eta Inmigrazioan Adituak sartuko lirateke (Elkartek, G.K.E.ak, Sindikatuak eta abar). Hirugarren multzoan Administrazio Publikoko Teknikariak egongo lirateke. Laugarren multzoan, berriz, etorkin talde bati elkarrizketak egin zaizkio, etorkin horien bizi-baldintzak zuzenean ezagutu ahal izateko.

Erabilitako metodologia horretan oinarrituta atera ditugun ondorioak jasoko ditugu epigrafe honetan. Plan honen 8. Kapituluaren xehetasun handiagoz azalduko ditugu goian aipaturiko baliabide eta erakunde horiek.

4.2.1- Tokiko Administrazioaren Programa edo/eta Memorien dokumentu azterketa

- **A.** Aztertutako dokumentazioak erakusten du ez dagoela bereziki etorkinen kolektiboari zuzendutako zerbitzu askorik. Halaz ere, gero eta gehiago dira **oro har hiritarrei zuzendutako programa eta zerbitzuen erabiltzaileak diren etorkinak.**
- **B.** Nazionalitatea ez da estatistikoki udal arlo eta zerbitzu guztietan jasotzen den elementua, eta horregatik, etorkinen kolektiboari eskainitako zerbitzuen azterketa egitea zaila da benetan.

4.2.2. Elkarrizketak

- **A.** Elkarrizketatutako gizarte agente guztiek adierazi dute **etorkinen kopuruak gora egin duela**, bereziki azken lau urte hauetan.
- **B.** Etorkinak **gazteak dira** eta **Latin Amerikatik, Ekialdeko lurraldeetatik eta Magrebeko lurraldeetatik** datoz gehienak. Latin Amerikako eta Ekialdeko lurraldeetako kolektiboaren artean emakumeak dira nagusi, aldiz, gizonezkoen presentzia handiagoa da Magrebeko etorkinetan, azterketaren lehen faseko azterketa kuantitatiboan egiaztatu den bezala.
- **C.** Elkarteen arabera, inmigrazioaren arrazoi nagusia ekonomikoa da, eta beren helburu nagusia lanpostu bat lortzea da. Hona hemen aztergai dugun kolektibo honek lan egiten duen lan merkatuko sektoreak: **ostalaritza, etxeko lanak (emakume-**

ak) eta eraikuntza sektorea (gizonak). Gehienetan, **baldintza txarretan** egiten dute lan, eta **kualifikazio txikiko** postuetan.

- **D.** Etorkinen elkarteek eskaintzen dituzten jarduez gainera, elkarrizketatutako elkarte eta erakunde sozialen **ia erdiak badu etorkinen kolektiboarekin loturiko programa edo baliabide espezifikoren bat.** Honako programa hauek dira ohikoena:
 - Arreta Juridiko-Sozialerako programak
 - Hiritarren sentsibilizazioa
 - Prestakuntza programa orokorrak eta hizkuntzak
- **E.** Elkarrizketatutako elkarteetako batzuek langile etorkin ordainduak dituzte eta beste batzuek, berriz, kolaboratzaile boluntario etorkinak.
- **F.** Etorkinen lehen **eragozpenak etxebizitza**, berme ekonomikorik ez dutenez askotan etxebizitzaren jabeek baztertu egiten baitituzte, eta **lanbideratzea** dira, neurri handi batean beren egoera administratiboarengatik, eta **hizkuntza alorreko beharrengatik.**
- **G.** Egiaztatu da **ikasle etorkin ugari** dagoela D ereduaren ez den beste hizkuntza eredu batzuk eskaintzen dituzten ikastetxeetan.
- **H.** **Ikasle** etorkinek ikasteko **motibazio handia** ageri dute, eta gehienetan oso ongi egokitzen dira egoera berrira.
- I.** Elkarrizketatutako erakunde gehienek adierazi dute **gizarte agente desberdinen artean ez dagoela koordinaziorik**, eta erakunde bakoitzak eskaintzen dituen **baliabideak eta zerbitzuak ez direla ezagutzen.**
- **J.** **Elkarrizketatutako etorkinen** kolektiboak, **pertzepzio positiboa** ageri du irundarreko. Dituzten espektatibei dagokienean, gehienak beste Autonomia Erkidego batzuetatik etorri badira ere, oro har, beren nahia **Irunen geratzea** da, lotura afektiboak baitituzte udalerrian.
- **K.** Ohiturei dagokienean, etorkinek beren jaioterriko **ohiturei eusten diete**, bereziki elikadura ohitura eta erlijioari dagokienean.
- **L.** Elkarteek adierazi duten interes handiko elementuetako bat zera da, **distantziak eta ez ezagutze kulturalak** eragozten dutela batzuetan etorkinekiko esku hartzea.

"Irunen bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinek dituzten beharrei buruzko Azterketak" eta "Irungo udalerrian inmigrazioari begira dauden iritzi eta jarrerren Azterketak" eskaintako datuei buruz ondorioak ateratzeko orduan, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan:

1.) Irunen bizi diren komunitatetik kanpoko pertsona etorkinei buruzkoa da azterketa hori. Horrek esan nahi du erroldatutako pertsona horiek egoera erregularrean –egoitza baimenarekin- edo egoera irregularrean –soilik erroldatuak baina egoitza baimenik gabe- egon daitezkeela. Bestalde, aipatzekoa da, azterketak inondik ere ez dituela jasotzen gure hirian erroldatuta ez dauden pertsonen egoera eta beharrak, eta hain zuzen ere horiexek izango lirateke gaur egun inmigrazio fenomenoaren alde iluna. Ildo horretatik, aipatzekoa da, etorkinak biltzen dituzten eta etorkinei laguntzen dieten elkarteak direla instituzioentzako egoera "ikusezinean" dauden pertsona horien errealitatearen eta egoeraren behatoki bakarra. Tokiko Plan honen atal eraginkorrean zehazten den bezala, erakunde eta instituzioen arteko lankidetzak aukera emango luke kolektibo horri arreta handiagoa eskaintzeko.

2.) Gure hirian izango den komunitatetik kanpoko etorkinen presentziaren etorkizunerako proiektioei dagokienean, aipatzekoa da, proiektzio horiek zuhertasun handiz egin behar direla, ugari baitira etorkizun hurbilean Irunen etorkinen tasak alda ditzaketen kanpo agenteak –legeria eta dinamika ekonomikoa, besteak beste- eta barne agenteak –jatorrizko lurraldeetako gertakizunak eta migrazio ekintzaren dinamikak, besteak beste-. Halaz ere, gure hirian izango den komunitatetik kanpoko etorkinen presentziari dagokionean, badirudi gora egitea izango dela joera.

3.) Tokiko biztanleen iritzi eta jarrerei dagokienean, aipatzekoa da, azterketa egiteko erabilitako metodologiak –telefono bidezko inkestetan oinarritua- halako zehartasun batzuk badituela eta emaitzak ezin direla biztanle guztietara extrapolatu. Etxean telefonoa duten biztanleak ordezkaturako lituzkete emaitza horiek, baina telefonia mugikorraren presentzia gero eta handiagoa denez eta telefono konpainiak ere ugari direnez, halako prekauzio batez hartu behar dira emaitzak.

4.) Komunitatetik kanpoko biztanleen pertzepzioari dagokionean, ondorioak ateratzeko orduan, beharrezkoa da kontuan edukitzea biztanleria horrek ez duela berez kolektibo bat osatzen, baizik eta hainbat lekutatik etorritako pertsonak eta familiak direla, kultura, erlijio sinismen eta ohitura desberdinak dituztenak. Horrenbestez, komunitatetik kanpoko etorkinei begira jarduerak zehazten direnean, kontuan eduki behar dira berdintasun printzipioa eta aniztasuna errespetatzeko printzipioa.

5.) Azkenik, kontuan eduki behar dugu, Irunen bizi diren komunitatetik kanpoko e-

torkinen beharrak –Estatuko beste edozein udalerritan gertatzen den bezala-, erabat baldintzatzen dituela egungo atzerritarrei buruzko legeriak:

- Denbora laburrean araudiak etengabea aldatzen ari direnez; eta horiek ez dute soilik Atzerritarrei buruzko Legea eta Araudia ukitzen, baita ordenamendu juridikoaren beste arau batzuk ere, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Arruntaren Legea, Kode Penal eta abar; **irregulartasun juridiko** handia sortzen dute, eta horrek eragin negatiboa du bai legezkoetasunaren printzipioak araututako botere publikoetan bai haren hartzaile diren pertsona fisikoengan.
- Aldaketa horiek **burukratizazio, konplexutasun eta murrizte progresiboa** suposatzen dute egoera legal erregularra lortu ahal izateko, eskatutako epe nahiz baldintzetan. Horrenbestez, horrek guztiak egoera irregularrean dauden komunitatetik kanpoko etorkinengan izan ditzakeen eraginak honako hauek dira:
 - Nortasuna eta iraunkortasuna egiaztatzeko, lana bilatzeko dokumenturik ez izateak ez du aukerarik ematen atzerriko etorkinen nortasuna ezagutzeko eta dituzten eskubideak erabiltzeko, eta ez du aukerarik ematen gizarteratzeko eta lanbideratzeko.
 - Sorterrian dauden senideekin ezin dira elkartu.
 - Legezko irregulartasun egoerak horretarako aurreikusitako zigor-erregimena egoitea dakar, eta erregimen horrek hainbat zigor jasotzen ditu, isunarekin hasi eta etorkinak lurralde espainiarretik botatzeko zigorrarekin buka.
- Deskribaturiko administrazio egoera horrez gainera, **errolatuta ez egonez gero** ez dago aukerarik oinarrizko gizarte prestazioak jasotzeko.
- Aurreko horren guztiaren ondorioz, egoera horretan dauden komunitatetik kanpoko etorkinen kolektiboak mesfidantza eta errezelo handiak ditu Administrazio Publikoak eskaintzen dituen zerbitzuetara joateko.

5 • tokiko *planaren helburuak*

Irungo Tokiko Inmigrazio Planak bi helburu orokor lortzea proposatzen du funtsean. Lehenengoak udal jarduerak antolatzekeo beharra aipatzen du, Udalaren zereginetik datozen jarduerak dira horiek bai bere barne lanetan bai kanpora zuzentzen direnetan. Kasu honetan, oro har hiritarrei zuzenduak, nahiz -espezifikoagoak- gure hirian bizi diren etorkinei zuzenduak. Bi egiteko horiek, helburuak jasotzen duen bezala, xede bakarra dute: komunitatetik kanpoko etorkinen integrazioa.

Arreta sarea hobetzen laguntzea da Tokiko Planaren bigarren helburu nagusia. Kasu honetan, beste gizarte agente bat izango da Udala –baina paper garrantzitsua izango du etorkinei arreta eta zerbitzuak eskaintzen dizkieten instituzio, erakunde eta elkarten sarearen barnean. Horrenbestez, sare horren jarduna hobetzen lagundu nahi du Planak.

Helburu espezifikoek, berriz, hobeto zehazten dituzte helburu orokorrak. Hala bada, lau helburu espezifiko berezi dira, lehenengoak eta bigarrenak lehen helburu orokorra hobeto zehazten dute eta hirugarrenak eta laugarrenak, berriz, bigarren helburu orokorra:

5.1. Helburu orokorrak

- 1.) Irungo hirian bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinen integrazioa errazteko udal jarduerak antolatzea.
- 2.) Irungo hirian bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinen beharrei erantzuteko sarea hobetzen laguntzea.

5.2. Helburu espezifikoak

- 1- Komunitatetik kanpoko inmigrazioaren errealitatea udal interbentzioko esparru desberdinen plangintzara biltzea, zeharkako izaeraz eta genero-ikuspegia kontuan hartuz.
- 2- Udal interbentzioak antolatu eta optimizatzea komunitatetik kanpoko inmigratioari eta haien beharrei begira biztanleria irundarra sentsibilizatzeko.
- 3- Komunitatetik kanpoko etorkinen kolektiboaren eskariak eta beharrak bideratzeko aukera emango duten partaidetza eta elkarrizketa bideak sustatzea.
- 4- Informazioa eta koordinazioa hobetzea inmigratioaren alorrean beren jarduerak toki mailatik garatzen dituzten baliabide eta gizarte agenteen artean.

6

• esku hartze proposamenaketa aplikazio ekintzak

A. *Esku hartze proposamenak*

6.1. *Helburu Espezifikoa*

“Komunitatetik kanpoko inmigrazioaren errealitatea udal interbentzioko esparru desberdinen plangintzara biltzea, zeharkako izaeraz eta genero-ikuspegia kontuan hartuz” lortzeko:

6.1.1. Tokiko Inmigrazio Planaren aplikazioa eta jarraipena bultzatzea Irungo Udaltetik, eta zehatzago adierazteko, bere Gizarte Ongizate Arlotik. Euskal Inmigrazio Planarekin eta gure inguruko beste udalerriek alor horretan garatzen dituzten beste planekin koordinatuko da aplikazio hori.

6.1.2. Inmigrazioari buruzko Udaleko Mahaia sortu eta koordinatzea, instituzio, erakunde eta elkarten ordezkariak modu iraunkorrean hartuko dituen, gure hirian komunitatetik kanpoko etorkinen integrazioa sustatu ahal izateko.

6.1.3. Arian-arian, etorkinen errealitatea Udal Arlo desberdinek garatzen dituzten zeregin eta programetan jasotzea, gizarte bazterketaren prebentziorako, gizarteratzeko eta lanbideratzeko ekimenei, eta ostatu, kultur, hizkuntza, kirol eta asoziazionismoaren sustapenerako ekimenei arreta berezia eskainiz.

6.1.4. Irungo Ekintza Positiboko Plana aplikatzeko, inmigrazioaren alorreko udal jardueretan genero-ikuspegia jasotzea eta emakumearen alorrean Udalak antolatzen dituen jardueretan emakume etorkinen errealitatea jasotzea.

6.1.5. Udal langileen artean prestakuntza bultzatzea inmigrazioari eta kulturarteko ekintzari buruz.

6.2. Helburu Espezifikoa

“Udal interbentzioak antolatu eta optimizatzea komunitatetik kanpoko inmigrazioari eta haien beharrei begira biztanleria irundarra sentsibilizatzeko” lortzeko:

6.2.1. Inmigrazioaren fenomenoaren hirirako eta bertako biztanleentzako zerbait positiboa dela eta etorkinak eskubideko subjektuak direla dioen ikuspegia bultzatzea I-rungo herritarren artean. Horretarako, informazio eta sentsibilizazio ekintzak egingo dira hiritarrei begira.

6.2.2. Etorkinen partaidetza jasotzea hiritarrei begira egiten diren informazio eta sentsibilizazio ekintzen diseinuan.

6.2.3. Kulturarteko bitartekariaren irudia izateko beharra jasotzea gizarte programak aurrera eramateko orduan.

6.2.4. Toki mailako komunikabideek inmigrazio fenomenoari ematen dioten tratamenduan eragitea, tratamendu hori etorkinen integrazioarako positiboa izan dadin.

6.2.5. Hainbat jarduera eta forotan parte hartzea Irunen bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinen errealitatea zabaltzeko.

6.3. Helburu Espezifikoa

“Komunitatetik kanpoko etorkinen kolektiboaren eskariak eta beharrak bideratzeko aukera emango duten partaidetza eta elkarriketa bideak sustatzea” lortzeko:

6.3.1. Tokiko Inmigrazio Plana aplikatzen eta ebaluatzen den bitartean etorkinen eskariak eta iritziak modu egonkor eta finkoan jasoko direla ziurtatzea Udalak.

6.3.2. Bereziki zaintzea gizartean egoera ahulean dauden komunitatetik kanpoko etorkinen eskari eta iritzien bidea, hauexek, gutxiengo etnikoen edo/eta “ikusezin” egoeran dauden eskariak, hirian bizi diren baina erroldatu gabe dauden etorkin irregularrenak, esate baterako.

6.3.3. Udalaren eskumen esparrua gainditzen duten eskariak edo kezkek dagokion alorrean eskumena duten Administrazio instantzietara bideratzea.

6.3.4. Beharreko laguntzak ematea komunitatetik kanpoko etorkinen elkarteek beren funtzioak optimiza ditzaten.

6.3.5. Hartu emanak eta lankidetzak bultzatzea etorkinen elkarteen eta Irungo erakunde eta elkarteen artean.

6.4. Helburu Espezifikoa

“Informazioa eta koordinazioa hobetzea inmigrazioaren alorrean beren jarduerak toki mailatik garatzen dituzten baliabide eta gizarte agenteen artean, komunitatetik kanpoko etorkinei ematen zaien arreta hobetu ahal izateko” lortzeko:

6.4.1. Beharreko materialak prestatzea hirian bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinei dituzten eskubideei eta beren bizi-kalitatea hobetu dezaketen baliabideei buruzko informazioa emateko.

6.4.2. Beharreko koordinazio sistemak sortzea eta daudenak hobetzea, komunitatetik kanpoko etorkinen arreta xede duten Administrazio, erakunde eta elkarteen artean.

6.4.3. Zerbitzuen mapa integral bat prestatzea komunitatetik kanpoko etorkinei begira, eskaintzan egon litezkeen bikoizketak eta hutsak zainduz eta etorkinak integratzeko bideak bilatuz.

6.4.4. Eskumena duten Administrazio eta erakundeei komunitatetik kanpoko etorkinei ematen zaien arreta hobetzeko beharreko zerbitzu edo/eta programak sortzea proposatzea.

B. Aplikazio ekintzak**ESKU HARTZE PROPOSAMENAK**

6.1.1. Tokiko Inmigrazio Planaren aplikazioa eta jarraipena bultzatzea Irungo Udaletik, eta zehatzago adierazteko, bere Gizarte Ongizate Arlotik. Euskal Inmigrazio Planarekin eta gure inguruko udalerrietan alor honetan garatzen diren planekin koordinatuko da aplikazio hori.

6.1.2. Inmigrazioari buruzko Udaleko Mahaia sortu eta koordinatzea, instituzio, erakunde eta elkarten ordezkariek modu iraunkorren hartuko dituen, gure hirian komunitatetik kanpoko etorkinen integrazioa sustatu ahal izateko.

6.1.3. Arian-arian, etorkinen errealitatea Udal Arlo desberdinek garatzen dituzten zeregin eta programetan jasotzea, gizarte bazterketaren prebentziorako, gizarteratzeko eta lanbidertzeko ekimenei, eta ostatu, kultur, hizkuntza, kirol eta asoziazionismoaren sustapenerako ekimenei arreta berezia eskainiz.

6.1.4. Irungo Ekintza Positiboko Plana aplikatzeko, inmigrazioaren alorreko udal jardueretan genero-ikuspegia jasotzea eta emakumearen alorrean Udalak antolatzen dituen jardueretan emakume etorkinen errealitatea jasotzea.

PLANA APLIKATZEKO EKINTZAK

a) Gizarte Ongizatearen, eta bereziki, Inmigratio Teknikariaren jarduerak.

b) Tokiko Plana eta bere esku hartze proposamenak gizarte agente desberdinei eta, oro har, publikoari zabaltzea komunikabideen bidez.

c) Eusko Jaurlaritzarekin bilerak egitea Euskal Inmigratio Planaren aplikazioa koordinatzeko.

a) Gizarte agenteei dei egitea Inmigratioari buruzko Udaleko Mahaia osatzea, bere egitekoak, bere koordinazio sistema, bileren maiztasuna, lan-tresnak eta bere ebaluazio sistema adosteko.

b) Gizarte Ongizate Arloak Inmigratioari buruzko Udaleko Mahai horren jarduna zaintzea.

c) Beste udal Arloei, beste udalerriei eta Eusko Jaurlaritzari Inmigratioari buruzko Udaleko Mahai horren aurrerapausuen berri ematea.

a) Arlo desberdinetan udalak bideratzen dituen jarduerak biltzea.

b) Inmigratioari buruzko Udaleko Mahaia jarduera horiei buruzko informazio eguneratua ematea.

c) Inmigranteen elkarteek eginiko proposamenak eztabaidatu eta udal praktikan jasotzea arestian aipaturiko alor horietan.

d) Gizarte Ongizate Arloak, jasotako proposamenen aplikazioaren jarraipena egitea.

a) Ekintza Positiboko Tokiko Plana berrikustea esku hartze neurriak emakume etorkinen beharretara egokitzeko eta emakume irundarren sustapenerako jardueretan ikuspegi hori sartzeko.

6.1.5. Udal langileen artean prestakuntza bultzatzea inmigratioari eta kulturarteko ekintzari buruz.

6.2.1. Inmigratioaren fenomeno hirirako eta bertako biztanleentzako zerbait positiboa dela eta etorkinak eskubideko subjektuak direla dioen ikuspegia bultzatzea Irungo herritarren artean. Horretarako, informazio eta sentsibilizazio ekintzak egingo dira hiritarrei begira.

6.2.2. Etorkinen partaidetza jasotzea hiritarrei begira egiten diren informazio eta sentsibilizazio ekintzen diseinuan.

6.2.3. Kulturarteko bitartekariaren irudia izateko beharra jasotzea gizarte programak aurrera eramateko orduan.

6.2.4. Toki mailako komunikabideek inmigratio fenomenoari ematen dioten tratamenduan eragitea, tratamendu hori etorkinen integrazio-rako positiboa izan dadin.

6.2.5. Hainbat jardura eta forotan parte hartzea Irunen bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinen errealitatea zabaltzeko.

a) Udal langileak ikastaro, jardunaldi eta kongresuetara joatea.

a) Udal kanpainak aurrera eramatea.

b) Udal jarduerak aurrera eramatea.

c) Etorkinen elkarteek bideratutako kanpaina eta jardueri laguntzea.

a) Inmigratioari buruzko Udaleko Mahaiaren bidez, hiritarrak sentsibilizatzeari begira etorkinen elkarteek eginiko jardura proposamenak jasotzea.

a) Kulturarteko bitartekariaren irudia izanez gero zein egoera edo programa izango liratekeen onuradun aztertzea Tokiko Administrazioak, beste instituzio, erakunde eta elkarten proposamenak jasoaz, bereziki etorkinenak.

b) Gizarte irundarrean bitartekari lanak egiten dituzten pertsona batzuk kulturartekotasunean prestatzea, horrelakorik behar izanez gero.

a) Tokiko prentsa dossierrak egitea eta komunitatetik kanpoko etorkinei buruzko albisteen tratamendua berrikustea.

b) Tratamendu formula ez baztertzailak gomendatzea etorkinei begira.

c) Tokiko komunikabideek etorkinen integrazio-rako jardura positiboak zabal ditzaten sustatzea.

d) Bereziki ahulak diren komunitatetik kanpoko etorkinen kolektiboek komunikabideek ematen dieten tratamenduari arreta berezia eskaintzea.

a) Topaketa, kongresu eta beste foro batzuetara joatea eta Tokiko Inmigratio Planari eta Irungo inmigratioari buruzko jakinarazpenak eta txostenak aurkeztea.

6.3.1. Tokiko Inmigrazio Plana aplikatzen eta ebaluatzen den bitartean etorkinen eskariak eta iritziak modu egonkor eta finkoan jasoko direla ziurtatzea Udalak.

6.3.2. Bereziki zaintzea gizartean egoera ahulean dauden komunitatetik kanpoko etorkinen eskari eta iritzien bidea, hauxe da, gutxiengo etnikoen edo/eta "ikusezin" egoeran daudenen eskariak, hirian bizi diren baina erroldatu gabe dauden etorkin irregularrenak, esate baterako.

6.3.3. Udalaren eskumen esparrua gainditzen duten eskariak edo kezka dagokion alorrean eskumena duten Administrazio instantzietara bideratzea.

6.3.4. Beharreko laguntzak ematea komunitatetik kanpoko etorkinen elkarteek beren funtzioak optimiza ditzaten.

6.3.5. Hartu emanak eta lankidetzak bultzatzea etorkinen elkartean eta Irungo erakunde eta elkartean artean.

b) Aldizkari espezializatueta artikulua argitaratzea.

c) Elkarte eta erakundeekin koordinatzea hainbat forotan parte hartzeko.

a) Tokiko Administrazioak etorkinen iritziak eta eskariak jasotzea Inmigrazioari buruzko Inmigrazioari buruzko Udaleko Mahaiaren bidez. Etorkinei inkestak egingo zaizkie eta egokitzat hartzen diren beste sistema batzuk erabiliko dira horretarako.

b) Etorkinen ordezkariak egoki eta zehaztutako bideetatik egiten dela ziurtatzea.

a) Elkarteek ordezkariak ez dituzten etorkinekiko elkarrekintza eta informazioa bilatzea: landa-lana etorkinak biltzen diren lekuetan.

a) Txostenak prestatzea eta erantzunaren jarraipena egitea.

a) Etorkinen elkarteei laguntza material eta instrumentalen hornidura sustatzea Tokiko Administrazioetik.

b) Etorkinen elkarteei beren jardueren onerako diren dirulaguntza, deialdi, lehiaketa eta a-barri buruzko informazioa ematea.

c) Baliabide materialen erabilera normalizazioa bilatzea, eta elkarteek jada Irunen dauden ekipamenduak erabiltzeko aukera izatea.

a) Komunitatetik kanpoko etorkinek Irungo erakunde eta elkarteek antolatutako jardueretan parte har dezaten laguntzea.

b) Etorkinei hiriko elkarte sarearen berri ematea.

6.4.1. Beharreko materialak prestatzea hirian bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinei dituzten eskubideei eta beren bizi-kalitatea hobetu dezaketen baliabideei buruzko informazioa emateko.

6.4.2. Beharreko koordinazio sistemak sortzea eta daudenak hobetzea, komunitatetik kanpoko etorkinen arreta xede duten Administrazio, erakunde eta elkarten artean.

6.4.3. Zerbitzuen mapa integral bat prestatzea komunitatetik kanpoko etorkinei begira, eskaintzan egon litezkeen bikoizketak eta hutsak zainduz eta etorkinak integratzeko bideak bilatuz.

c) Beren jatorrizko lurraldeei begira Irungo instituzio eta erakundeek egiten dituzten garapenerako jardueri buruzko informazioa ematea etorkinei.

a) Baliabideen Gida prestatzea Irunen bizi diren Pertsona Etorkinentzako.

b) Beste administrazio edo erakunde batzuetatik etorritako materialak Irungo elkarte eta erakundeen artean zabaltzea baliagarriak direnean, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eginikoei arreta berezia eskainiz.

a) Inmigrazioari buruzko Udaleko Mahaia funtzio espezifikoa.

b) Diseinaturiko koordinazio sistema etorkinei nahiz zerbitzu desberdinetako teknikariei helaraztea.

c) Diseinaturiko koordinazio sistemai buruz prestakuntza eta bereganatze lanak egitea.

d) Eginiko koordinazio sistemak erabilgarriak eta egokiak direla zaintzea, beharreko ebaluazioak egin eta hobekuntzak sartuz.

a) Inmigrazioari buruzko Udaleko Mahaia funtzio espezifikoa.

b) Zerbitzuen mapa integrala etorkinei nahiz zerbitzu desberdinetako teknikariei helaraztea.

c) Mapa integralari buruz prestakuntza lanak egitea.

d) Eginiko zerbitzuen mapa integrala erabilgarria eta egokia dela zaintzea, beharreko ebaluazioak egin eta hobekuntzak sartuz.

e) Eskualdean dauden gizarteratze bideak arreta handiz zehaztea, eta horretarako enplegu agentziekin harremanetan jartzea.

6.4.4. Eskumena duten Administrazio eta erakundeei komunitatetik kanpoko etorkinei ematen zaien arreta hobetzeko beharreko zerbitzu edo/eta programak sortzea proposatzea.

a) Inmigrazioari buruzko Udaleko Mahaiak zehaztutako konklusioetatik abiatuta, Irunerako behar diren neurri, zerbitzu edo programak dagozkien instantzietan aurkeztea.

7 • *metodologia*

7.1. Irungo Tokiko Inmigrazio Plana prestatzeko erabilitako metodologia

2002. urtean, Irungo Udalaren Gizarte Ongizate Arloak teknikari bat kontratatu zuen –Enplegu Sustapenaren bidez- Irunen bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinen errealtatea aztertzeko lanera lehen hurbiltze bat egiteko. Handik gutxira, eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Kontseilariak 2002ko uztailaren 15ean emaniko A-gindua bidez, Euskal Autonomi Erkidegoko Toki Erakundeentzako Laguntzetarako deialdia egin zen, ekainaren 25eko 155/2002 Dekretua garatzeko, dekretu horrek arautzen baititu Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak inmigrazioaren alorrean jarduerak egiteko ematen dituen Laguntzak. Eusko Jaurlaritzak sustaturiko bide horri atxikitzea erabaki zuen Irungo Udalak, eta halatan, Inmigrazio Zuzendariak 2002ko abenduaren 5ean emaniko Ebazpenaren bidez, Irungo Udalari dirulaguntza bat ematea erabaki zen inmigrazio teknikari baten kontratazioan laguntzeko eta Tokiko Inmigrazio Plana prestatu ahal izateko. Aipatzekoa da, komunitatetik kanpoko inmigrazioaren gaiari heltzeko tokiko plana prestatzeko aukera planteatu duten euskal udalerrien artean lehenengoetako bat izan dela Irun.

Tokiko Inmigrazio Planaren prestaketa Donostiako Tokiko Inmigrazio Planarekin heretsiki koordinatuta egitea planteatu zen lehen momentutik, plan hori egite fasean dago gaur egun. Koordinazio hori oso beharrezkotzat hartu zen, komunitatetik kanpoko etorkin ugari egokitzen baitira Donostian eta Irunen, eta gainera, fenomenoaren errealtatea ikusteko eta Nazional 1 errepidearen korridorean zehar planteatzen dituen beharrak antzemateko metodologia gisa.

Irunen eta bere eskualdean bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinen ezaugarri sozio-demografikoak eta hiriko inmigrazio fenomenoaren inguruan irundarrek duten gizarte per-

tzepzioa xehe ezagutu ahal izateko, "Irunen bizi diren Komunitatetik kanpoko etorkinek dituzten beharrei buruzko Azterketa" izeneko azterketa egiteko eskatu zen, eta "Bidasoa Bizirik, S.A." Bidasoako Garapenerako Agentziak egin zuen azterketa hori. Azterketa horren azken xedea ahalik eta oinarri sendoena izatea zen haren inguruan Inmigrazioaren alorreko jarduerak planifikatu ahal izateko Tokiko Planaren bidez.

Euskal Inmigrazio Planaren jarraipen estua egin du Gizarte Ongizate Arloak, bi planen artean koordinazio egokia lortu ahal izateko, eta tokiko errealitatearekin lotura duten plan horren alderdiak jasotzeko ahaleginak egin dira. Irungo Tokiko Planaren Bibliografian ikus daitekeen bezala, beste tokiko inmigrazio plan batzuk eta batik bat gure inguruan sortutako hainbat material ere kontsultatu ditugu, inmigrazio politika eta integrazio estrategien alorrean izan diren aurrerapen berrienak jaso ahal izateko. Ahalegin berezia egin dugu proposaturiko jarduerari sendotasun juridikoa emango zieten legeriak biltzeko orduan, eta Tokiko Plana lan tresna gisa erabiltzen duten pertsonen eskura jarri ditugu legerien erreferentzia horiek. Helburu bera du eginiko baliabideen bilketak.

Aipamen berezia merezi du Planaren jarduera proposamenak biltzeko erabilitako metodologiak. Toki mailan alor honetan diharduten gizarte agente guztien partaidetza lortu ahal izateko, Jardunaldi Tekniko bat antolatu zuen Gizarte Ongizate Arloak, eta berrogeita hamar lagunetik gora bildu ziren hartan, instituzio, etorkinen elkarte eta pertsona horiei laguntzeko erakundeen ordezkariak guztiak ere. "Irunen bizi diren Komunitatetik kanpoko etorkinek dituzten beharrei buruzko Azterketaren" emaitzak aurkeztu zitzaizkien bildutako guztiei. Geroago, aurkeztutako emaitzak eztabaidatu ziren eta bildutakoen jarduera proposamenak jaso ziren. Gizarte Ongizate Arloak proposamen horiek guztiak Tokiko planean jasotzeko konpromisoa hartu zuen, eta halaxe egin da. Euskal Inmigrazio Planak emaniko jarraibideak eta "Irunen bizi diren Komunitatetik kanpoko etorkinek dituzten beharrei buruzko Azterketa" horretan jasotakoak izan dira Tokiko Planaren jarduera proposamenak presatzeko erabili diren beste iturriak.

7.2. Irungo Tokiko Inmigrazio Plana aplikatzeko metodologia

Tokiko Plana aplikatzeko antolakuntza-beharrei begira, badira bi alderdi, kontsultaturiko gizarte agente guztiek nabarmendu dituztenak. Lehenengoak Inmigratioari buruzko Udaleko Mahaia sortu eta etengabean mantentzeko beharra aipatzen du Tokiko Plana bideratuko duen esparru gisa. Nabarmendu den beste alderdia, berriz, etorkinekin lanean ari diren gizarte agente desberdinen arteko koordinazioa hobetzeko beharra da, koordinazio hori ez baitago gaur egun.

Tokiko Inmigrazio Planaren aplikazioan bi kontu horiek jaso dira, Inmigrazioari buruzko Udaleko Mahaia, bere egitekoen artean koordinazio sistema eraginkorrak sortzeko lana izango duena, 7.4.2. Esku hartze Proposamenean jasotzen den bezala.

Datozen urteetan Irungo Udalak babestu eta sustatuko du Tokiko Inmigrazio Planaren aplikazioa, baina esan behar da, aztergai dugun hau bezalako fenomeno batek, protagonistak pertsonak izanik, kudeaketa ireki eta malgua izan behar duela. Gainera, pertsona horien egoera juridikoan eragina duen legerian gertatzen ari diren aldaketan ondorioz, aldian behin egokitze aldaketak egin behar dira Tokiko Planaren aplikazioan. Planaren aplikazio osoan izendatzaile komuna izan behar du komunitatetik kanpoko etorkinen eta Irungo herritarren protagonismo bateratuak; Plana aplikatzen den bitartean gertatuko diren aldaketek erantzun egin beharko diete bi kolektiboetan aurkitutako behar berriei.

8 • *baliabideak*

Esku hartze proposamenak bideratzeko, eta horrenbestez, Plan honen Helburuak betetzeko dauden baliabideak aipatzen dira ondoren. Hona hemen baliabide horiek sailkatzeko orduan kontuan hartu dugun irizpidea: lehenengo Administrazio Publikoak, eta bigarren, gainerako gizarte agenteak.

8.1. Administrazio Publikoa

8.1.1. Irungo Udala

- Gizarte Ongizate Arloa
 - Lehen Mailako Arreta Zerbitzua
 - Interbentzio Komunitariorako Zerbitzua
 - Plangintza eta Baliabideen Kudeaketa Zerbitzua
 - Kontsumitzailearentzako Arreta Zerbitzua
- Hezkuntza, Kultura eta Gazteria Arloa
- Hiritarrekiko Harremanetarako Arloa
 - Hiritarrak Atenditzeko Zerbitzua (HAZ)
 - Udaltzaingoa eta Hiritarren Segurtasuna
- Garapenerako Lankidetzeta eta Tolerantzia Saila
- Euskara Zerbitzua
- Irunvi (Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa, S.A.)
- Kirolaren Udal Patronatua
- Agencia de Desarrollo Bidasoa Activa- Bidasoa Bizirik S.A.

8.1.2. Estatu administrazioa

- Atzerritarren eta Inmigrazioaren Gobernu Ordezkaritza.
- Lan eta Gizarte Gaietarako Bulego Probintziala.
Gobernuaren Ordezkariordeztza.
- Polizia Nazionalaren Atzerritarrentzako Bulegoak.
- Gai Kontsularren eta Atzerrian Espainiarrei Babesa emateko Zuzendaritza Nagusia.
- Herriaren Defentsari Espainiarra
- Espetxeen Gizarte Zerbitzuak
- Enplegu Institutu Nazionala (INEM)

8.1.3. Euskal autonomi administrazioa

- Inmigratio Zuzendaritza
- Lurraldeko Justizia Ordezkaritza
- Osakidetza
- Lurraldeko Etxebizitza Ordezkaritzak
- Emakunde
- Ararteko
- Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Saila.
Biktimari Laguntzeko Zerbitzua
- Heldu Programa
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Lurraldeko Hezkuntza Ordezkaritza
- Atxilotutako pertsonarekiko Laguntza eta Orientazio Zerbitzua (SAOS) /
Exekuzio Penal eta Gizarteratzeko Laguntza Zerbitzua (SAER)
- Lanbide Informaziorako eta Lan Merkatuan Sartzeko Zerbitzu Publikoa
- Egailan Prestakuntza eta Enplegua Sustatzeko Elkarte Publikoa
- Lanbidez Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzarako Kontseilariordeztza

8.1.4. Gipuzkoako Foru Aldundia

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Zerbitzuen Saila.

8.1.5. Beste toki erakundeak

- Donostiako Udala

- Pasaiako Udala
- Errenteriako Udala
- Hondarribiko Udala
- Hendaiaiko Udala
- Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa

8.2. Erakundeak eta elkarteak

8.2.1. Hezkuntza, emplegua eta prestakuntza

- Unión General de Trabajadores (UGT). Inmigranteentzako Gida Zentroa
- Comisiones Obreras (CCOO). Langile Etorkinen Prestakuntzarako Zentroa
- Euskal Langile Alkartasuna (ELA)
- LAB (Langile Abertzaleen Batzordea)
- Helduen Eskola Iraunkorra (EPA)
- Lanbide Hastapenerako Zentroa (CIP)
- Erroak-Sartu
- Gizarteratu eta Lanbideratzeko Laguntza Sarea Euskadi (RAIS Euskadi)
- Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna (EHNE)
- Gipuzkoak Enpresarien Elkarte (ADEGI)

8.2.2. Kolegio profesionalak

- Gipuzkoako Abokatuen Kolegioa. Atzerritarren Txanda.


8.2.3. Etorkinei laguntzen dieten elkarte, GKE eta erakundeak

- Adiskidetuak Atzerritarrekiko elkartasunerako Etorkinen Elkarte
- Garaipen Emakume Etorkinen Elkarte
- "Bata" Ekuatore Gineako Afrikaren Adiskideak
- Ekuatore Ginea Elkarte
- "Esperanza Latina" Latin Amerikako Etorkinen Elkarte
- Donostiako Elizbarrutiko Karitas
- Irungo Elizbarrutiko Karitas
- Gipuzkoako Gurutze Gorria
- Irungo Gurutze Gorria
- La Madrasa Mundu Arabiar Islamikoaren Zentroa
- Gipuzkoako SOS Arrazakeria!

- Emaus Gizarte Fundazioa
- Senegaldarren Elkartea Gipuzkoarra
- Harresiak Apurtuz Etorrinei Laguntzeko Euskadiko GKEen Koordinakundea
- Zimentarri Elkartea- Aukera Proiektua

8.2.4. Auzo elkarteak

- OIASSO 2000 Auzo Elkarten Federazioa
- Hiritar Foroa



9 • *jarraipena eta ebaluazioa*

Irungo Udalaren Gizarte Ongizate Arloaren berariazko zeregina da Toki Inmigrazio Planaren aplikazioaren jarraipena eta inmigratio teknikariaren irudiarri loturik dago. Parte hartzen duten agente guztiak ez badira behar bezala koordinatzen ezinezkoa izango litzateke Planaren aplikazioa aurrera eramatea, eta aplikazio horren emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko orduan ere, ahaleginak egin behar dira gizarte agente guztien partaidetza lortzeko. Horretarako, erabilitako sistema eta baliabideen inguruan etengabe gogoeta egiteko eta hobetze proposamenak aurkezteko esparrua izango da Inmigrazioari buruzko Udaleko Mahaia.

Aipatzekoa da, prozesuak eta emaitzak neurtzeko erabil daitekeen adierazle multzoaren erakusgarri bat baino ez direla aurkeztzen diren adierazleak, eta horiek Planaren aplikazioan jaso egin beharko dira kontu berriek garrantzia hartzen duten heinean. Aztergai duguna bezalako arlo batek dinamismo handia badu ere, funtsezkotzat hartzen ditugu etengabe eta azkenean, Tokiko Planaren aplikazioa amaitzen denean, 2006. urtean, ebaluatu beharreko lorpen batzuk:

- 1** Inmigrazioaren alorra zein mailatan jaso den administrazioen zereginean.
- 2** Etorकिनen elkarreak indartu eta antolatzea.
- 3** Etorकिनek hiriko jarduera normalizatuetan duten partaidetza maila.
- 4** Bertako biztanleriak hirian inmigratioaren alorrean antolatzen diren jardueretan duen partaidetza maila.
- 5** Komunitatetik kanpoko etorkinen izaerari loturik bertako pertsonen eta etorkinen artean hirian gertatzen diren gatazken maila.

Planaren jarraipena eta emaitzen ebaluazioa urtero egingo dira eta Tokiko Planaren indarraldia amaitzean, berriz, azken ebaluazioa egingo da. Horretarako, ahaleginak egingo dira iturri anitzetatik etorritako informazioa edukitzeko, Inmigrazioari buruzko Udaleko Mahaiatik etorritakoa, eta administrazio eta erakundeei eginiko inkestetatik etorritakoa. Azkenik, kontuan hartuko da Tokiko Planaren exekuzioari dagokionean etorkinek lortu duten asetze maila neurtzeko aukera.

ESKU HARTZE PROPOSAMENAK	EMAITZEN ADIERAZLEAK
<p>6.1.1. Tokiko Inmigrazio Planaren aplikazioa eta jarraipena bultzatzea Irungo Udaletik, eta zehatzago adierazteko, bere Gizarte Ongizate Arlotik. Euskal Inmigrazio Planarekin eta gure inguruko udalerrietan alor honetan garatzen diren planekin koordinatuko da aplikazio hori.</p>	<p>1. Tokiko Inmigrazio Plana duten Instituzio, erakunde eta elkarte kopurua.</p> <p>2. Komunikabideen bidez emandako informazio kopurua.</p>
<p>6.1.2. Inmigrazioari buruzko Udaleko Mahaia sortu eta koordinatzea, instituzio, erakunde eta elkarteen ordezkariak modu iraunkorrean hartuko dituen, gure hirian komunitatetik kanpoko etorkinen integrazioa sustatu ahal izateko.</p>	<p>1. Inmigrazioari buruzko Udaleko Mahaia urtean eginiko bilera kopurua.</p> <p>2. Taldekideen asistentzia eta partaidetza maila.</p> <p>3. Mahaia eginiko txosten kopurua gomendioak emateko.</p>
<p>6.1.3. Arian-arian, etorkinen errealitatea Udal Arlo desberdinek garatzen dituzten zeregin eta programetan jasotzea, gizarte bazterketaren prebentziorako, gizarteratzeko eta lanbidertzeko ekimenei, eta ostatu, kultur, hizkuntza, kirol eta asoziazionismoaren sustapenerako ekimenei arreta berezia eskainiz.</p>	<p>1. Inmigrazioaren alorra sar daitekeen udal zerbitzu eta programen "mapa" bat egitea.</p> <p>2. Beharreko egokitzapenak egiteko Alor desberdinekin eginiko koordinazio bileren kopurua.</p> <p>3. Urteko azken hiruhilekoan: inmigrazioaren alorra jaso duten udal programen kopurua.</p> <p>4. Udal jardueretan parte hartzen duen etorkin kopuruaren estatistika eguneratua.</p>
<p>6.1.4. Irungo Ekintza Positiboko Plana aplikatzeko, inmigrazioaren alorreko udal jardueretan genero-ikuspegia jasotzea eta emakumearen alorrean Udalak antolatzen dituen jardueretan emakume etorkinen errealitatea jasotzea.</p>	<p>1. Udal jardueretan parte hartzen duten emakume etorkinen kopuruaren estatistika eguneratua.</p> <p>2. Hainbat dokumentu prestatzea emakume etorkinek dituzten arazoak islatzeko.</p> <p>3. Emakume etorkinen gizarte arazo espezifikoek konponbideak bilatzea.</p>

6.1.5. Udal langileen artean prestakuntza bultzatzea inmigratioari eta kulturarteko ekintzari buruz.

6.2.1. Inmigratioaren fenomenoaren hirirako eta bertako biztanleentzako zerbait positiboa dela eta etorkinak eskubideko subjektuak direla dioen ikuspegia bultzatzea Irungo herritarren artean. Horretarako, informazio eta sentsibilizazio ekintzak egingo dira hiritarrei begira.

6.2.2. Etorkinen partaidetza jasotzea hiritarrei begira egiten diren informazio eta sentsibilizazio ekintzen diseinuan.

6.2.3. Kulturarteko bitartekariaren irudia izateko beharra jasotzea gizarte programak aurrera eramateko orduan.

6.2.4. Toki mailako komunikabideek inmigratio fenomenoari ematen dioten tratamenduan eragitea, tratamendu hori etorkinen integrazio-rako positiboa izan dadin.

6.2.5. Hainbat jardura eta forotan parte hartzea Irunen bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinen errealitatea zabaltzeko.

1. Inmigratioari buruz egindako ikastaro, jardunaldi eta kongresu kopurua udal langileen asistentziarekin.

2. Parte hartu duen pertsona kopurua.

1. Udal kanpainen kopurua eta mota.

2. Udal jardueren kopurua eta mota. Partehartzaile kopurua.

3. Etorkinen elkarteek eginiko kanpaina eta jardueri eskainitako laguntza kopurua.

1. Hainbat dokumentu prestatzea etorkinen ekarpenak jasotzeko.

1. Txosten bat prestatzea irudi hori jasotzeko beharra dagoen ala ez zehazteko.

1. Tokiko prentsan azaldutako dossier kopurua eta komunitatetik kanpoko etorkinei buruzko albisteei ematen zaien tratamendua berrikus- teko jardura kopurua.

2. Etorkinei loturiko tratamendu-formula ez baztertzaileri buruz egindako gomendio kopurua.

3. Etorkinen integrazioarako jardueri buruz tokiko komunikabideetan aurrera eramango jardura kopurua.

1. Tokiko Inmigratio Planari eta Irungo inmigratioari buruzko jakinarazpenak eta txostenak aurkezteko eginiko topaketa, kongresu eta beste foroak kopurua.

2. Aldizkari espezializatuetan argitaratutako artikulua kopurua.

6.3.1. Tokiko Inmigrazio Plana aplikatzen eta ebaluatzen den bitartean etorkinen eskariak eta iritziak modu egonkor eta finkoan jasoko direla ziurtatzea Udalak.

6.3.2. Bereziki zaintzea gizartean egoera ahulean dauden komunitatetik kanpoko etorkinen eskari eta iritzien bidea, hauxe da, gutxiengo etnikoen edo/eta "ikusezin" egoeran daudenen eskariak, hirian bizi diren baina erroldatu gabe dauden etorkin irregularrenak, esate baterako.

6.3.3. Udalaren eskumen esparrua gainditzen duten eskariak edo kezkek dagokion alorrean eskumena duten Administrazio instantzietara bideratzea.

6.3.4. Beharreko laguntzak ematea komunitatetik kanpoko etorkinen elkarteek beren funtzioak optimiza ditzaten.

6.3.5. Hartu emanak eta lankidetzak bultzatzea etorkinen elkarteen eta Irungo erakunde eta elkarteen artean.

6.4.1. Beharreko materialak prestatzea hirian bizi diren komunitatetik kanpoko etorkinei dituzten eskubideei eta beren bizi-kalitatea hobetu dezaketen baliabideei buruzko informazioa emateko.

1. Inmigratioari buruzko Udaleko Mahaiaren bidez, etorkinei egindako inkestaren bidez edo egokitzat hartzen den beste edozein sistemaren bidez, etorkinen iritziak eta eskariak jasotzeko Tokiko Administrazioak aurrera eramango jarduera kopurua eta horietatik etorritako dokumentu kopurua.

1. Elkarteek ordezkatzeko ez dituzten etorkinekiko elkarrekintza eta informazioa bilatzeko jardueren kopurua: landa-lana etorkinak biltzen diren lekuetan.

1. Horren erantzunaren txosten eta jarraipen kopurua.

1. Tokiko Administrazioak etorkinen elkarteei emaniko laguntzen kopurua eta mota.

2. Informazio protokolo bat prestatzea etorkinen elkarteei beren jardueretarako onuragarriak izan daitezkeen dirulaguntza, deialdi, lehiaketa eta abarren berri emateko.

3. Baliabide normalizatuen erabilera maila etorkinen elkarteen aldetik.

1. Komunitatetik kanpoko etorkinen partaidetza maila Irungo erakunde eta elkarteek antolatutako jardueretan.

2. Informazio protokoloan Irungo elkarte eta erakundeek eginiko jarduerak sartzeari.

1. Irunen bizi diren Etorkinentzako Baliabideen Gida prestatzea.

6.4.2. Beharreko koordinazio sistemak sortzea eta daudenak hobetzea, komunitatetik kanpoko etorkinen arreta xede duten Administrazio, erakunde eta elkarten artean.

6.4.3. Zerbitzuen mapa integral bat prestatzea komunitatetik kanpoko etorkinei begira, eskaintzan egon litezkeen bikoizketak eta hutsak zainduz eta etorkinak integratzeko bideak bilatuz.

6.4.4. Eskumena duten Administrazio eta erakundeei komunitatetik kanpoko etorkinei ematen zaien arreta hobetzeko beharreko zerbitzu edo/eta programak sortzea proposatzea.

1. Diseinaturiko koordinazio sistemari buruz aurrera eramango informazio jardueren kopurua.

2. Koordinazio sistemaren eraginkortasunaren urteko ebaluazioa, parte hartzen duten gizar-
te agenteei eginiko kontsulten bidez.

1. Zerbitzuen mapa integrala prestatzea.

2. Eskualdean dauden gizarteratze bideen ba-
liagarritasunaren urteko ebaluazioa egitea, eta
hobekuntzak sartzeko ahaleginak egitea.

1. Inmigrazioaren alorrean Irunek behar dituen
neurri, zerbitzu edo programei buruzko txos-
tenen kopurua.

10. bibliografia

10.1. Legeria:

- Atzerritarrei buruzko Legeria (2003)
Ed. Civitas. Biblioteca de legislación nº 17
- Atzerritarrei buruzko Legeria eta Legeria osagarria (2. Ed. Eguneratua. 2003)
Ed Tecnos. Biblioteca de legislación nº 264

10.2. Planak:

- Euskal Inmigrazio Plana (2003)
- Etorokinak Gizarteratzeko Plana. Nafarroako Foru Erkidegoa (2002)
- Ier. Plan para la Integración de la Inmigración. Valenciako Udala (2002)
- Iruñea Irekia. Iruñeko Udala (2000)
- Plan Interdepartamental para la Inmigración y la Ciudadanía. Diputación de Barcelona (2002)

10.3. Baliabideen gida:

- Etorokinak orientatzeko gida. Eusko Jaurlaritza (2003)

- Etorkinentzako baliabideen gida Bizkaian. Harresiak Apurtuz-BBK (2003)
- Hiria zugandik hurbil. Donostiako Udala (2003)

10.4. Liburuak:

- BLANCO, ISMAEL; GOMÁ, RICARD (Coords.) (2002)
Gobiernos Locales y Redes de Participación.
Ariel Social. Bartzelona
- DÍEZ NICOLÁS, JUAN; RAMÍREZ LAFITA, M. JOSÉ (2001)
La Inmigración en España. Una década de investigaciones.
Ministerio de Trabajo y As. Sociales. Secretaría General de As. soc. Instituto de Migraciones y Servicios Sociales. Madril
- GARCÍA HERRERO, G.A; RAMÍREZ NAVARRO J.M. (1996)
Diseño y Evaluación de Proyectos Sociales.
Libros Certeza. Zaragoza
- PAJARES, MIGUEL (2000)
Inmigración y ciudadanía en Europa: La Inmigración y el Asilo en los años dos mil.
Ministerio de Trabajo y As. Sociales. Secretaría General de As. soc. Instituto de Migraciones y Servicios Sociales. Madril

10.5. Aldizkariak eta artikuluak:

- PRENTSA AZTERKETA (2002ko laugarren hiruhilekoa / 2002ko hirugarren hiruhilekoa / 2003ko lehen hiruhilekoa)
MUGAK Ikasketa Zentroa
Donostia
- ÁLVAREZ DORRONSORO, IGNASI (2000ko urria)
Integración en la Sociedad ¿Quién tiene que cambiar más?
Gipuzkoako SOS Arrazakeria. Lan Koadernoak. Donostia.
- CARBONELL i PARIS (2000ko abendua)
Decálogo para una Educación cívica, intercultural y antirracista.
Gipuzkoako SOS Arrazakeria. Lan Koadernoak. Donostia

- DELGADO RUIZ, MANUEL (2002ko otsaila)
¿Quién puede ser inmigrante en la ciudad?
Gipuzkoako SOS Arrazakeria. Lan Koadernoak. Donostia

- FEDERACIÓN SOS RACISMO! (2003ko urtarrila)
Contra las restricciones derivadas del sistema de cupos / Por otra política de Inmigración / SOS Racismori! buruzko proposamena Donostia

- GIPUZKOAKO SOS ARRAZAKERIA (2003ko apirila)
Construcción social del Inmigrante irregular / Precarización de la situación laboral de la Inmigración. Donostia

- JULIANO, DOLORES (2002ko azaroa)
La telaraña de las redes migratorias
Gipuzkoako SOS Arrazakeria. Lan Koadernoak. Donostia

- MUGAK ALDIZKARIA (1etik [1997ko lehen lauhilekoa] 24.era [2003ko hirugarren hiruhilekoa] Donostia

- RUIZ BIKANDI, URI (2003ko urria)
Formación del profesorado: Nuevas necesidades para una nueva época.
Gipuzkoako SOS Arrazakeria. Lan Koadernoak. Donostia

- STEEE-EILAS (2002ko martxoa)
Política migratoria desde la Educación
Gipuzkoako SOS Arrazakeria. Lan Koadernoak. Donostia

- SOS RACISMO (2002ko ekaina)
Documento análisis reforma 8/2000. Donostia

- SOS RACISMO (2003k uztaila)
Propuestas para la aplicación a la legislación española del principio de igualdad de trato entre las personas propuesto por la normativa europea. Donostia

- WAGMAN, DANIEL (2002ko abuztua)
Esto sí es delito
Gipuzkoako SOS Arrazakeria. Lan Koadernoak. Donostia



irungo tokiko
immigrazio
plana

